



U10 Bilbo

Abokatuak atxilotuz erantzun du Espainiako Estatuak



- **Sagardoa XVI. mendean** Urumean behera garraiatzen zenekoa
- **Gaizka Garitano**, Eibarko entrenatzailea «Ardura bat sentitzen dut nire ideia, herria eta hizkuntzarekiko»
- **Jose Maria Erauskin**, Stop Kaleratzeak «Europa bakarrik geratzen zaigu, hemengo justiziak ez du balio»
- **Parisko atentatuak** Ultrena eta sekurokratena da jokoa





1975



Hiltamuaren kronika

Potasas de Navarrako itxialdia, azken salbuespen egoera,
Aberri Eguna, nuklearraren auzia, irailaren 27ko fusilatzeak,
Francoren heriotza, euskalduntze-alfabetatzearen gorakada...

**datorren
astean**



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginaz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soruluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2015eko urtarrilaren 18a, 2.445. zenbakia

ASTEKO GAIA

1939KO ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA

Errepresioaren laugarren hanka. JOSU CHUECA / 4

PERTSONAIA

GAIZKA GARITANO: «Izugarri gustatzen zait dirua desmitifikatzea». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

SAGARDOA Ala bazan edo ez bazan... Urumean behera jaisten zan. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

AHAL DUGU? JUNE FERNÁNDEZ / 20

EUSKARA ETA BOTEREA AINHOA LARRAÑAGA / 21

EZ NORA BARROSO / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Alternatiba bakarra. EDU ZELAIETA / 21

BERTSO BERRIAK Zirrikituetan. ANE LABAKA MAIOZ / 22

ERDIKO KAIERA

GARAZI LOPEZ DE ARMENTIA, BARATZA ARETOA: «Urtebetean dena ez da ondo atera, baina denetik ikasi dugu».

MYRIAM GARZIA / 24

URUGUAIKO ALDAXKA ELKARTEA Hego-hegoaldeko euskaldunen nortea eta konortea. ASISKO URMENETA / 26

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

ALEA Bi beltz badiako kaian eserita. MYRIAM GARZIA / 33

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA, UNAI BREA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

GEHIEGIZKO KLAUSULAK «Kutxabankek ahitu egin nahi gaitu». URKO APAOLAZA AVILA / 37

CHARLIE HEBDOREN AURKAKO ATENTATUA Bukatu dira bromak European. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 40

JOSEP RUAIX, GRAMATIKARI KATALANA: «Gazteek eta etorkinek bizkarra ematen badigute jai daukagu». JORDI BADIA, ASSUMPCIÓ MARESMA / 42

EUSKAL PRESO POLITIKOAK Giza eskubideen defentsari eraso. XABIER LETONA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 45

NET HURBIL Grezian jokoan dira politika neoliberalak eta demokrazia bera. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

1939KO ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA

Errepresioaren laugarren hanka

1936ko altxamenduarekin lerrokatu ez ziren herritarrek gerraostean jasandako jazarpena izugarria izan zela jakina da, baina errepresio horri tamaina hartzeko beste iturri bat zabaldu berri zaigu. Orain arte eskuraezin egon diren Erantzukizun Politikoen Epaitegiakako espedienteek erakusten dute frankistek ekonomikoki zanpatu zituztela lehendik ere erbestera, kartzelara edo heriotzara zigortutakoak.

| JOSU CHUECA |

OSO EZAGUNAK zaizkigu 1936ko Gerraren ondorioz errepresioak hartu zituen hainbat adierazpide: heriotza zigorrak, kartzelaldiak, erbesteratzeak... Aitzitik, beste zenbait errepresio mota ez hainbeste, nahiz eta jendar-tean eragin oso handia izan, esate baterako gerraren hasieratik bertatik egin ziren konfiskazioak eta isun ekonomikoak.

Oroimen historikoaren inguruko ikerlanei erreparatuz, hedabideek lehen atal errepresibo haietan jarri dute arretarik handiena, baina duela gutxi arte eskuraezinak ziren eta ezkutaturik zeuden paper sortak eta dokumentazioa bistan geratu dira orain, eta ortzemuga historiko berriak ireki zaizkigu. Izan ere, errepresioaren izeberg handiaren beste atal iluna argitzen ari da Erantzukizun Politikoen Epaitegiak metatutako dokumentazio oparoan arakatzten dugun heinean.

Errepresio sail hau gerrarekin batera abiatu zen, erakunde eta herritarren ondasunen aurka, baina gerra bukatzeaz zegoela jo zuen goia, 1939ko Erantzukizun Politikoen Legearekin. Legearen hedadura, gogorkeria eta herritarren artean izan zuen eragina izugarriak izan ziren eta hastapenetako frankismoaren osagai errepresibo nabarmenetako bat bilakatu zen.

Jabetzak harrapakin bihurtzen direnean

1936ko uztailaren 18ko altxaldiarekin, lehen unetik talde falangistek eta karlistek lapurre-

tak egiteari ekin zioten inolako zailtasunik eta euskarri juridikorik gabe. Zigorgabetasun osoz eraso zituzten alderdi errepublikanoen, ezkertiarren eta nazionalisten egoitzak, eta halaxe berenganatu zituzten biltokiak, komunikabideen inprimategiak eta baita ondasun pribatuak ere. Jokaera horri bultzada handia eman zion matxinada militarrekin bat egin ez zuten alderdi eta erakundeek legez kanporatze bitxiak. Ez baita ahaztu behar garaileak suertatu ziren arren, frankistak izan zirela legalitate errepublikarraren aurka oldartu zirenak.

Testuinguru horretan kalera-tu zuten, Donostia hartu zuten egun berean, 1936ko irailaren 13an alegia, 198 zenbakidun dekretua, alderdi errepublikar, ezkertiar eta abertzaleak legez kanpo laga zituen. Horren ondorioz, haien jabetzak militarren, karlisten eta falangisten harrapakin bihurtu ziren.

Frankistek gerran egin zituzten aurrerapen militarren ondorioz, harrapaketak gero

eta garrantzitsuagoak bilakatu ziren, eta azkenik 1937ko urtarrilaren 10ean beste dekretu bat kaleratu zuten, horiek era antolatuan eta kontrolpean egiteko asmoz. Hala, "Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Nazionala" eta honen menpeko eskualdeetako adarrak sorrarazi zituzten matxino frankistek, eskuratuta zituzten lurraldeetan nahi bezala aritzeko. Euskal Herrian ere –Bizkaiko kasuan 1937ko uztailaz geroztik–

1936ko altxaldiaren lehen unetik talde falangistek eta karlistek lapurretak egiteari ekin zioten. Zigorgabetasun osoz eraso zituzten beste alderdien egoitzak, eta halaxe berenganatu zituzten biltokiak, komunikabideen inprimategiak eta baita ondasun pribatuak ere

1939KO ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA



1936ko altxaldiaren lehen unetik hasi ziren harrapaketak; horiek era antolatuan eta kontrolpean egiteko asmoz sortu zituzten frankistek dekretuak eta legeak, tartean 1939ko erantzukizun politikoena. Irudian, Iruñeko errepublikarren egoitzaren kontrako erasoa.

erakunde hori arduratu zen errepresio ekonomikoa aurrera eramateaz.

Lege berezia, epaitegi bereziak

Baina ekimenik latzena 1938az geroztik hasi ziren diseinatzen –gera kasik amaitzear zutelakoan– Tomás Domínguez Arevalo “Rodezno-ko Kondeak” gidatzen zuen justizia sailetik eta militarren batzorde batetik: 1939ko otsailaren 9an onartutako Erantzukizun Politikoen Legea

hain zuzen ere. Hari esker, gerra amaitzeko hilabete pare baten faltan, indarrean jarri zuten Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionala, baita eskualdeetako beste 17 auzitegi ere, hiri-buru guztietan baitzeuden tokian tokiko epaitegiek hornitutako txostenak, eta horietan oinarritu ziren errepresioa zabaltzeko.

Auzitegi berri horiek osaera berezia zuten eta ohiko epaitegietatik bereizten ziren. Epaia-mahaiburua militarra zen eta harekin batera




EMON "SUA"
HIRUGARREN DISKOA SALGAI
—JAI ERRITMOA GOITIK BEHERA!—
KONTRATAZIOA IREKITA: 618 072 076

WWW.EMONMUSIKA.COM



baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

1939KO ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA



Erantzukizun Politikoen Epaitegiko espedienteek eta sententziek 1936ko Gerrako eta gerraosteko errepresioaz informazio baliotsua gordetzen dute. Lehen aldiz kontsultagai daude, orain arte eskuraezinak baitziren. Ezker-eskuin: Eibarko herritar talde baten kontrako sententzia, Antonio Labayen tolosar jeltzaleari ezarritako zigorra, eta Fernando Sasiain Donostiako alkate sozialistak jasandakoa.

beste epaile batek eta Falange Tradizionalistaren ordezkari batek –batzuetan legegileak zen, baina beste askotan hori ere ez– osatzen zuten tribunala. Jazarpena aurrera eramateko oinarri hartu zuten legea ere berezia zen erabat. Alde batetik, errepresioa jardun politikoan aurka bideratuta zegoelako. Legearen ize-nak berak eta artikuluen edukiak argi eta garbi adierazten zuten ekimen politikoen arduradun eta partaideak zanpatzea zutela helburu. Ez zen gerra garaiko jardun militarra soilik epaitzen, gerra aurreko lan eta ideologia politikoa ere bai, bere ere atzeraeragintzeko izaerak 1934ko urriara arte eramaten zuelako zigorraldia. Erabat zilegi ziren ekimen, aktibitate eta erakundeak lege horren menpe gelditu ziren. Beraz, lege horrekin zigortu nahi zituzten ez bakarrik gerra garaian izan zitezkeen jardun politikoak, baita II. Errepublikako urteetako militantzia ere.

Gerra auzitegi batek zigortzea arrazoi nahikoa zen Erantzukizun Politikoen Epaitegiak beste prozesu bat abiarazteko. Hala, aurretik ezarritako zigorrari –askotan kartzelaldia edo heriotza zekarrena– zigor ekonomikoa gehitzen zioten.

Horrez gain, beste 16 arrazoi gehiago zeuden edozein pertsona inputatzeko eta haren kontrako espedientea abiarazteko, esaterako:

Euskal lurraldeetan ezarri zituzten erantzukizun politikoak epaitzeko auzitegiek 1939tik 1941 arte 10.101 epaiketa hasi zituzten, eta horietatik 4.066 bukatutzat jo zituzten

Fronte Popularreko edo legalitate frankistatik kanpo utzitako alderdi edo erakunde baten partaide izatea; legalitate errepublikarrari eustea eta ondorioz, frankisten arabera, “Mugimendu Nazional Lortuasuari” aurre egitea. Era berean, nahikoa zen erbestera joatea, denbora laburrez bazen ere, errudun zantzuak izateko eta jazarria izateko.

4.000 sententzia Euskal Herrian

Estatu osoan zabaldu zituzten 17 epaitegieta-tik 4 Euskal Herrian zeuden. Bat Bilbon –hiru azpi auzitegi zituen– eta bana Gasteizen,

Iruñean eta Donostian, nahiz eta azken bien egoitza Iruñean kokaturik egon. Euskal lurraldeetako auzitegi horiek guztiek 1941 arte 10.101 epaiketari eman zieten hasiera, eta horietatik 4.066 bukatutzat jo zituzten. Estatuko beste zenbait tokitan gertatu zen legez, epaitegiek berek martxan jarritako meka-nismo errepresiboak gainditu

egin zituen; 1942an legea erreformatu behar izan zuten eramanezina bihurtu zitzaielako.

Hala ere, epe horretan egindako lana eta zabaldutako errepresioa eta izua ez zen makala izan. Iruñean aritu zen auzitegiko epaimahaia honakoek osatu zuten: Eladio Carnicero militarrek, Leocadio Tamara epai-leak eta Joaquín Ochoa de Olza falange tradi-

1939KO ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA

zionalistaren ordezkariak. 1940ko abuztuaren 4tik 1941eko urriaren 21a arte soilik –14 hilabete eskasean– 1.249 epaiketa egin zituzten. Gipuzkoatik eta Nafarroatik helarazten zizkieten txostenetan oinarritu ziren epaitzeko. Informazio hori tokian tokiko guardia zibilek idazten zuten gehiengutik, baina Falangearen komisaldegietako iturriek eta informazio zerbitzuek, herrietako alkateek eta apezek ere hartu zuten parte informazio trukaketan. Azken horiek, kristau moralitate kontuek gain, batzuetan politikagintzaz ere aritzen ziren. Batzuek zein besteek emandako datuekin, zenbait kasutan txosten mardulak osatu zituzten, informazio politikoaz aparte, akusatuen egoera ekonomikoaren berri ere zehatz-mehatz emateko.

Hil eta gero... frankistek poltsikoa bero

Epaitu eta zigortu zituztenen artean oinarritzko militante asko zeuden, baita buruzagi politiko ezagunak ere. Horietako batzuk alde zuzenetik erail zituzten, eta hargatik senideak zigor ekonomikotik libratu zituzten. Baina beste askotan, indarrez “desager-



Alsina itsasontzian ihes egindako kideak; horietako asko Erantzukizun Politikoen Epaitegiak zigortu zituen. Erbestean zeuden zigortuen kasuan, askotan euren senideek ordaindu behar izaten zuten isuna.

tu” arazi zituzten, eta ondorioz, errepresio ekonomikoa zekarren prozesuak aurrera jarraitzen zuen. Senitartekoak izan ziren konfiskazioen kalteak eta isunak jasan zituztenak,

Kalean da urtarrileko



aizu!

- Willis Drummond azkena?
- Euskarak badu etxea Gasteizen
- Anne Etxegoien arin-arin
- Komikien bizileku bizia
- Gora Errigora!
- Denetarik Korrika Kulturalean

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org

1939KO ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA

kartzelan, erbestean edo hilobietan zeuden gertuko enantzukizuna beregain hartuta. Esaterako, Tafallako kartzelatik atera eta fusilatuak izan ziren hainbat berbintzandar eta tafallar ezkertiaren kasuan, zintismo handiz “leku ezezagunean” zeudela esan zuen tribunak, eta familiartekoei, heriotzaren minaz gain, zigor ekonomikoa jaso zuten.

Beste kasu batzuetan, epaitegi militar batek heriotzara kondenatua izateak ez zuen oztopatu familia berriz zigortzea, eta ondasun gehienak, etxea barne, bahitzea. Juan Arrastia buruzagi politikoa sozialista dugu horren lekuko. Torrelavegan epaitu eta hil ostean, bere ondasun guztiak konfiskatu zituzten jarritako isunari aurre egiteko. Bere alargun Veremunda Olasagarrek, 1940an erbestetik itzultitakoan epeka ordaindu behar izan zuen senarra zenari ezarritako isuna. Antzekoa gertatu zitzaion Florencio Iracheta Irungo zinegotzi sozialistari. Heriotza zigorra izan zuen, baina epaimahaiak ez zuen erreparorik izan ondoren 75.000 pezetako isuna ezartzeko.

Erbestera joateak militante eta buruzagi politikoen errua larriagotu egiten zuen frankisten ikuspegitik. Horren ondorioz, Jose Antonio Agirre edo Manuel Irujo bezalako buruzagi jeltkideei 20na milioi pezetako isun ezarri zieten, eta ezkerreko beste buruzagi batzuek ere, hala nola Constantino Salinas sozialista altsasuarrak edo Fernando Sasiain Donostiako alkateak “ondasunen erabateko galera” jaso zuten.

Isun ekonomikoarekin batera, hainbat kasutan, deserriratzeko zigorak zetozen. Aipatu Sasiaini 15 urteko ezarri zieten, eta jakina denez, Frantziara egon eta gero Espainian (Palentzia) bizi behar izan zuen hil arte, Donostiatik urrun.

Zigor ekonomikoaz gain, oso ohikoa zen lan gaitasun-gabetzea izatea. Irakaskuntzan eta funtzio publikoan aritu zirenak izan ziren kaltetuenak baina zenbait arlo pribatutan zebiltzanak ere (abokatuak, arkitektoak...) jazarpen latza izan zuten.

Genero ikuspegitik, larria izan zen alargun askoren egoera. “Presoaren emaztearen” rola ikertu eta landu den bezala, alargunarena ere talaia horretatik jorratu beharra dago. Izan ere, hasieran aipatu dugun legez, hilik zeuden senarren edo gertuko enakako isunei eta konfiskazioei aurre egin behar izan zieten alargun geratu ostean ere. Batzuetan “autofede” edo damutze adierazpenak egin behar izan zituzten etxeko onda-



Fernando Sasiain, Donostiako alkate izana 1936ko altxamenduaren aurretik. 15 urtez egon zen deserriratu Frantziara, hil arte Espainian, eta “ondasunen erabateko galera” jaso zuen.

Ikerketak aurrera doazen heinean, argi eta garbi esan daiteke Erantzukizun Politikoen Legea, izua eta egonezina zabaltzeaz gain, tresna ikaragarria izan zela galtzaileei “heriotza zibila” ekartzeko

sunak ez galtzeko edo berreskuratzeko. Eta noski, asko ziren beraien jardun politikoagatik zuzenean zigortutakoak. Ekintzaile ezkertiarekin gain, Euskal Herriaren Emakume Abertzale Batzako partaideak –batez ere euskal eskoletan eta ekimen kulturaletan ibilitakoak– bereziki errepresaliatuak izan ziren lege horren bidez.

Ikerketak hasi besterik ez dira egin, eta oraingoz zaila da jakitea lege horrek estatu frankistari zenbateko dirutza eman zion.

Era berean, konfiskazioen ibilbide bihurriaren ondorioz ezin atzeman liteke zenbat eraman ziren muturreraino eta zenbatek berreskuratu ahal izan zituzten ondasunak 1960ko hamarraldian lege hori indargabetu zenean. Baina ikerketak aurrera doazen heinean, argi eta garbi esan daiteke Erantzukizun Politikoen Legea, izua eta egonezina zabaltzeaz gain, tresna ikaragarria izan zela galtzaileei

“heriotza zibila” ekartzeko.

Erbestearekin, heriotza zigorrakin, eta espetxealdiekin batera, errepresio frankistaren laugarren hanka izan zen. ■





20. ikasturtean harpidetzen direnentzako OPARIAK



hik hasi
harpidetuta



**Sarrionandiaren
ipuin laburren
liburua**




Hazi Hezi
harpidetuta



**69 abesti
jolasteko
CDa**



+



+



www.hikhasi.com/harpidetza

«Izugarri gustatzen zait dirua desmitifikatzea»

Denbora da poligrafo bakarra.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Ume batentzat mundua bezain borobila da baloia?

Gure aita futbolaria zen, bi osabak ere bai, amaren osaba Koldo Aguirre Athletic-eko jokalaria ohia da... Nik txikitatik arnastu dut futbola. Besterik ez zegoenez, horrekin hazi naiz, une batean estu, itota, sentitzeraino. Mundu profesionalera iritsita konparaketak ekidin ezinak dira eta erreferente gehiegi nituen etxean. Gainera, gure garaian, infantiletan jendeak utzi egiten zion ikasteari. 15 urterekin jendeak buruan zeukan bakarria Athleticen jokatzeko zen. Talde handien harrobietan galbahea urtero pasa eta ohikoa lehen taldera inoiz ez iristea izan arren, jendeak dena uzten zuen futbolaren izenean. Pentsa, horietako askok ez aurrera ez atzera geratzean gorriak eta bi pasa dituzte eta orain hasi dira ikasten. Nik ikasketekin jarraitzeko tentua izan nuen, baina orduan, bai jokalaria bai gurasoak itsututa zeuden, eta klubek ezer gutxi egiten zuten ikasketei eusteko. Orain, zorionez, Lezaman eta Zubietan bertan dauzkate irakasleak, eta gaztetxo bati txoro haizea sartu orduko, "txikito, jarraitu ikasten!" agintzen dio klubak.

Ez da samurra ikasten jarraitzea, harmailetan gurasoek burua galtzen duten bitartean, ordezkariak belarrira biharko Messi zarela xuxurlatzen dizunean.

Gurasoena frustrazio metaketa izugarria da. Zoratzear garrasika dabilzan guraso gehienek nahi dute euren umea eurak izan nahi eta izan ez zirena bihurtzea. Ez gaitezen engaina, askotan gurasoek nahi dute haurra futbolari izatea, ez haurrak. Nola azaldu, bestela, eskola arteko partidetan dagoen lehiakortasun itsu hori? Ez da normala, ordezkariena

normala ez den bezala. Hala, sinesgaitza izan arren Eibarko jubenil batek ordezkaria dauka. Hirugarren mailan entrenatzen nuenen traje eta gorbata dun bat etortzen zen jokalariek hileroko 150 edo 200 euro kobratu behar zuten hitzartzera. Haluzinatu egiten nuen. Txikitatik nabil futboleko baina futbolaren parafernalia osoa ulertzeko asko kostatzen zait oraindik.

Lehiatu zara Lehen mailan, Bigarrenengan, Bigarren B-n... Alde handia dago fokupetik itzalpera?

Publiko zabalaren begietara, saltzen dena baik ez da existitzen. 2. B maila ez da bereziki erakargarria, gero eta arazo ekonomiko handiagoak daude, telebistak jendea zelaietatik urrundu du... Gaur egun, Lehen mailan, edo asko jota 2. A mailan ez bazaude, ez daukazu oihartzunik, jendearentzat hutsaren hurrengo zara. Garai txarrak dira, telebistak mugitzen ditu hariak, eta elitetik kanpora hotz egiten du. Diru-sarrerak nahi badituzu Lehen edo Bigarren A mailan egon behar duzu. Horrek Espainiako Estatuan bizirauteko aukera 42 taldek baizik ez daukatela esan nahi du. Hortik behera ez jokalariek, ez entrenatzaileek, ez klubak ezin dute futbolaz bizi.

NORTASUN AGIRIA

Gaizka Garitano, 1975eko uztailaren 9an Derion sortua. Athleticen harrobian hazia, jokalaria gisa 1993an debutatu zuen. Athleticen, Eibarren, Realean, Lleidan eta Ourensen jokaturik, Alavesen erretiratu zen 2009an. 2010ean, Eibar Bn hasi zen entrenatzaile lanetan, eta lehen taldearen gidaritza 2012an harturik, Eibar Lehen Mailara igotzea lortu du.





Sistema antolatuta dagoen bezala, Futbol Profesionalaren Ligatik kanpo egoteak futboletik at uzten zaitu kasik.

Horregatik bururatzen zaizkio jendeari futbola entzutean "dirua", "fama" edo "polemika", "gola" eta "baloia" baino lehenago?

Futbolaren inguruko gero eta programa gehiago daude baina gero eta gutxiago hitz egiten da futbolaz. Entrenatzaileok ere prentsaurrekoak eman eta eman gabiltza, futbolaz apenas mintzatu gabe. Prentsak diotenaz, arbitroaz, bataren eta bestearen adierazpenez, arropa markez, polemikez, fitxaketez, azken aldiko indarkeriaz... Inguruan gertatzen den guztia dugu aipagai, baina jokoaren esentzia inori ez zaiola ardu-

ra dirudi. Ingurukoak muinekoak baino oihartzun askoz handiagoa du. Ulertzen dut zirko handi batean gaudela eta negozio hau ezingo litzatekeela mantendu polemikarik, marketinik, inguruko berbarorik eta kamisetarik saldu gabe. Niri jokoa gustatzen zait, ordea, jokoaren gaixo bat naiz. Futbol partida bat xake partida bat bezalakoa da niretzat. Baina alferrik da, kazetari asko jokoari buruz hasiko balira ipurdi-bistan geratuko lirateke, entrenatzaileok ere askoz gehiago busti beharko genuke, zer dakigun eta zer ez erakutsiz, eta denon erosotasunaren ize-nean, inork ez du jokoz hitz egiten.

Hitz egin dezagun entrenatzaile on bat izateko behar denaz.

Entrenatzaile on bat izateko jokoaren eza-gupen handia behar duzu, baina batez ere, taldea kudeatzen jakin, lider bat izan. Egungo puntako entrenatzaile guztiak dira lider-rak, gidariak, euren ideiak transmititzen eta komunikatzen dakitenak, beraien konbentzimenduz jokalaria konbentzitzen dutenak, bakoitzari zukua ateratzen diotenak, pertsonen arteko harremanen gakoak kontrolatzen dituztenak... Niretzat entrenatzailea kudeatzailea da, coach-a. Badakigu taktikan, teknikan, entrenamenduen prestaketan edo partiden planteamenduan ezin dugula huts egin, baina taldearen oreka orokorra kudeatzeak ematen digu buruko minik handiena. Ni naizen bezalakoa izanda jokalarientzat eredugarria izaten saiatzen naiz, esaten dudanarekin baino egiten dudanarekin predikatzen. Ez naiz diskurtso handien zalea, nahiago dut nire akats eta aziertoekein bide bat markatu eta bide horrekin koherentea izan. Koherentzia eta lana dira nire goiburuak. Askotan huts egiten dut, baina beti markatutako bidearen barruan eta lana eginda. Entrenatzaile batek ez badu entrenamendua ongi prestatu edo jokalariei erakutsi beharreko bideoa aurrez ikusi, alferrik eskatuko die lana eta zorrozatasuna, ez dauka sinesgarritasunik. Zure bidea ekin-tzekin markatzen baduzu, ordea, jendeak jarraituko zaitu.

Errazago jarraituko zaitu identitate baten arabera eraikitako talde homogeneo batek?

Egungo futboleko gero eta zailagoa da oinarritzko balore sorta bati eustea, talde homogeneoa osatzea. Guretzat ideala litzateke talde euskalduna, edo gutxienez euskal herritarrez osatutako taldea, eraikitzea. Lehen Mailan gaude, ordea, eta euskal jokalaria onenak Athletic eta Realera doaz. Horrek Espainiako eta atzerriko merkatura jotzera behartzen gaitu, eta ondorioz, gero eta zailagoa da Eibarko

herriarekin, kulturarekin eta izaerarekin lotura duen taldea egitea. Horregatik pasatzen ditugu orduak eta orduak hemen herri bat, kultura bat, hizkuntza bat, izaera bat eta gauzak egiteko modu bat daudela azaltzen. Eibar ez da talde arrunt bat. Jokalariak jakin behar dute talde hau zer zen orain 40 urte, zer zen orain 5 urte, eta nola portatu behar duten gurea bezalako klub batean. Fitxatu aurretik, horregatik erreparatzen diogu hainbeste jokalariaen zelatik kanpoko izaerari. Langilea eta umila ez denak nekez luzituko du gurean.

Transmititutakoa barneratzeko denbora behar da, futbolearen existitzen ez den denbora.

Egia da azken emaitzaren arabera baloratzen zaituztela, futbolearen ez dagoela etorkizunik, egun batetik bestera pasatzen zarela gailurretik zulora... baina ni txikitatik nago gorpil horretan sartuta eta ez naiz ohartzen. Badut presioa, baina ez dut sentitzen. Ohitu naiz urgutzia horretan bizitzera. Horregatik diot presioa norberak sartzen diola norbere buruari. Txikieria batek ito zaitzake, eta egoera gaizto batean hazi egingo zara. Hala, hotzean begiratuta, guk ez daukagu presiorik. Goseak hiltzen ari diren umeek, etxebizitza galtzeko zorian daudenek, kale gorrian geratu direnek... Horiek daukate benetako presioa. Guk zer presio daukagu? Kaleratzen bagaituzte pena galanta, urguiluan zauria, baina ez gara gosez hilko. Horregatik, ez dugu ahaztu behar gurea zirko bat dela eta benetan presiopean dagoenaren aurrera agertzen garela eguneroko. Askotan zeharo arduratuta agertzen gara, larritasunaren mugan, loa galduta, baina dena daukagu.

Denborarik ezak amnesia omen dakar. Ohartzen gara Eibarren balentriaz?

Gu ez gara konturatu. Ez dugu astirik izan hondartzan etzan eta gure zilborrei harro esateko "begira zer lortu dugun!". 2. Bn ez genuen aurrekontu handiena eta mailaz igo ginen. 2. An, aurrekontu txikienarekin irabazi genuen liga. Izugarri gustatzen zait dirua desmitifikatzea, diruari iskin egitea, erakustea badirela beste balore batzuk, ez duela beti diruak irabazten. Igotzeak bezainbateko poza ematen dit aurrekontu txikienarekin igo izanak. Ez daukagu entrenatzeko zelairik baina lehen mailan gaude. Hori ez da ahanzten.

"Eta orain, zer?" galdetuko luke konformagaitzak.

Helburua betetzen duzun unea beti da kritikoa, helburu berriak zehaztean beti duzulako zure mugekin topo egiteko arriskua. Azken urteetan egin duguna eginda ere, jendeak

EUSKAL OROIGARRIA
MAKILA
 eskaintza berezia

Gastaina / Larrua
 Mizpira / Alpaka
 Mizpira / Zilarra
 Mizpira / Larrua

*Opari berezietarako
 Pertsonalizatuak
 Prezio aukera desberdinak
 Iñaki Alberdik eginak*

argia

Eskaerak:
 Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
 ☎ 943 371 545 - denda@argia.eus
www.argia.eus/denda/makilak

Oreka

“Badira entrenatzaileak dauzkan jokalarietara egokitu behar duela diotenak, baina nire ustez, entrenatzaile onak bere ideiak transmititu eta praktikan jarri behar ditu. Ez da alferrik entrenatzailea. Hori hala, oso zaila da jokalaria guztiak entrenatzailearekin gustura egotea. Batzuek ez dute batere jokatzeko, besteek ez nahi beste... Are gehiago, jokatzeko ez duena pozik badago entrenatzaileak arazo bat dauka, jokalaria ez duelako entrenatzailea estutzen. Horregatik, gauza bat da pozik ez egotea eta beste bat gaizki esaka ibili eta giroa ozpintzen saiatzea. Lehenbizikoa ezinbestekoa da, bigarrena onartezina”.



gehiago nahi du. Baina orain Lehen Mailan gaude, denboraldia uste baino hobeto hasita, eta une gaitzak gero eta gertuago daude. Futbolearen mendian bezala gertatzen da, behin tontorra igota ogitartekoa jaten geratzen zara, baina gaua eta hotza heltzean ez dago behera egin beste erremediorik. Gu gailurrean ogitartekoaz gozatzen ari gara. Horregatik, plazer hori luzatzeko borrokatu eta gaua eta hotza datozenerako prest egon behar dugu.

Gaua eta hotza datozenean, entrenatzaileak bakar-bakarrik geratzeko arriskua izaten du.

Jokalariek entrenatzailea bota dezakete eta prentsak ere bai. Ez da kasualitatea entrenatzaile asko prentsa-aretoetik bizi badira. Futbolaz asko dakien lagun batek beti esaten dit, entrenatzaileak kazetarien aurrean bere burua ondo saltzen eta aldaketak egiten asmatzen badu, salbatuta dagoela. Nik, ordea, ez daukat hori kudeatzeko estrategiarik. Saiatzen naiz buruari mila buelta ez ematen eta naturaltasunari zein zintzotasunari hitza uzten. Esaterako, ardura bat sentitzen dut nire ideia, herria eta hizkuntzarekiko. Nirea ez da Eibar-ko langile bat izan eta partidak irabaztea bakarrik, nire baitan daramatzadanak aldarrikatu nahi ditut, aurrerapausoak ematen lagundu. Horrek prezio bat duela? Nahiago dut prezio hori ordaindu eta lasai lo egin. Etengabe erakuslehoan gaudenok ere gure hondar-alea jarri behar dugu.

Erakunde publikoek futbol taldeei dirua eman edo zorrak barkatu behar dizkiete erakuslehoan segi dezaten?

Ez zait normala iruditzen desagertzearen dagoen klub batek laguntzak jasotzea eta etxea ezin ordainduz dabilenari ez barka-

tzea. Baina hori da gaur egun gertatzen dena, eta horrelakoetan, lotsatu egiten zara zirkoaren parte izateaz. Egia da jendeak ez duela bere taldea desagertzea nahi, baina zeini eman behar zaizkio laguntzak? Kudeaketa txar baten erruz lepotik gora zorpetuta dagoen klubari? Dirua lapurtu duen agintariari? Orain arte, gauzak ongi egiteak ez zuela balio zirudien. Gu zorrik gabe lehia-tzen ginen zorpetuen aurka, baina fitxatzerako orduan zorpetuek guk baino diru gehiago eskaintzen zuten. Hori tranpa da. Zorionez, urak bere onera datoz, sistema guztia agerian geratzeak garbi utzi du futbol talde bat etxeko ekonomia bezala kudeatu behar dela, daukazuna baino gehiago gastatu gabe, zure ahalen arabera biziz. Horrek ordaintzen duenari egiten dio mesede, eta datozen urteak Eibarrentzat hobeak izango direlakoan nago.

Futbolarekin loturiko azkenaldiko indarkeria kasuek ere agerian utzi dute sistema.

Egia da klubek euren etxeko lanak egin behar dituztela, baina soluzioa arazoa bezain sinplea da. Jendeak ume-umetatik zelaira joatean, gurasoak, burua galduta borrokatzeko desiratzen dauden zalez inguratutik, etikoki duka-koak diren abestiak oihukatzen ikusi baditu, zer espero dugu? Ingalaterran ez da halakorik gertatzen. Hori aldatzea gure esku dagoen heziketa kontua da. Belaunaldi batek besteari txiki-txikitik esaten badio jendea errespetatu behar dela, berehala eta berez desagertuko da indarkeria futboletik. Futbola jendartearen isla da, eta jendarteak argi badu futbolearen indarkeriak ez daukala lekurik, egungo jarrerak desagerraraztea urte gutxitako kontua izango da. ■





Diputació de Lleida
Patronat de Turisme

Elurraren lurraldetik haratago...

▲
KIROLA ASKATASUNEAN

Baqueira Beret
Boí Taüll Resort
Port del Comte
Espot Esquí
Port Ainé
Tavascan
Tuixent-La Vansa
Virós-Vall Ferrera
Aransa
Lles de Cerdanya
Sant Joan de l'Erm

APP BERRIA
aralleida365
—
aralleida.com
—

Parte hartu lehiaketan
#nieve1415
aralleida.com/concursonieve



Ala bazan edo ez bazan... Urumean behera jaisten zan

Txotx denboraldia abiatu berri dela aitzakia hartuta, Astigarragako Petritegi eta Lizeaga sagardotegiek martxan jarri duten ekimena ekarri dugu orriotara: hainbat mende egin dute atzera, sagardoak historian izan duen lekua ezagutarazteko.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

PETRITEGIK ETA LIZEAGAK XV eta XVI. mendeetara egin dute bidaia, baserri-dolare bien jatorriaren bila, hasiera batean familia-ko arbasoen bizimodua ezagutu asmoz, eta Urumea ibaiak izandako garrantziarekin egin dute topo. Ur korronteak lotzen ditu Astigarraga eta Donostia, eta bi herrien arteko harreman sareen aztarnak aurkitu dituzte artxiboetan (gehienbat salerosketei buruzko idatzietan). Donostiako aberatsek bazuten interesik sagarrondoan lurretan, sagardoak bai baitzeukan merkatuan bezerorik. Zenbait jauntxok Astigarragako baserri-dolareak erosi zituen, bertan urtean zehar lan egingo zuten maizterrak sartu eta emaitzak poltsikoratzeko. Eta bigarren zati horretan rol esanguratsua zuen Urumeak, ibaian barrena garraiatzen baitzuten sagardoa barrikatan; eta noski, sagardoa bezala beste hainbat gai.

Zer da Donostia, Urumea gabe?

Teoria batek zalantzan jartzen du Donostia den moduko merkataritza hiria izatera iritsiko ote zen Urumea bezalako salerosketa eta garraio ibairik izan ez balu. Diote, mugimendu horiek izugarritzko bultzada eman ziotela hiriaren garapenari, eta beraz, hori gabe agian gauzak beste modu batera bideratuko zirela. Zaila da ziurtasunez jakitea hiriaren bidea bestelakoa izango zenentz,

Astigarraga eta Ergobiaren artean lau portu egongo ziren susmoa dago: Arbizu Portu, Ergobia, Murgia eta Gartziategi. Azken hori izango da berreraikiko dutena

baina Urumearekin zer izan den ezagutzeko behintzat iraganeko aztarnak badaude; eta ibaian ibiltzen zen mugimenduekin merkatu handia ireki zitzaion Donostiari eta donostiarrei.

Sagardoa Ternuaraino

XVI. mendean Ternuarainoko bidaiak egitzen zituzten euskal arrantzaleek eskorbutoren kontrako edari gisa erabiltzen zuten sagardoa. Astigarraga inguruetan baserri-dolareak erosita zeuzkaten Donostiako jauntxoek bazuten itsas-bidaia horien berri, eta negozioa ere usainduko zuten. Hilabeteak pasatzen zituzten arrantzaleek lurrik zapaldu gabe, eta sagardoa zen ontzietan bizirauteko eramaten zuten elementuetako bat. Egardia asetzear gain, infekzioak eta gaixotasunak ekiditeko aproposa zen edaria.

Pasaiaik abiatzen ziren itsasontziak Ternuarantz. Hala, lehen Donostiaraino Urumea ibaian behera garraiatutako sagardoa Pasaiaiko portura bideratzen zuten. Litro ugari sartzen zuten itsasontzietan, eta behar horiei denei erantzuteak sagardoaren produkzio eta merkaturatze handia eskatzen zuen. Produktuak uretan barrena garraiatzen bazituzten, logikak agintzen du egongo zirela karga eta deskargarako portu txikiak ibaian zehar.

Artxiboetan aurkitutako informazioaren arabera, bai Lizeaga eta bai Petritegi sagardotegiei buruzko lehen datuak XVI. mendekoak dira. Ordurako, idatzietan Donostiako jauntxoak ageri dira Petritegiaren eta Gartziategi baserri-dolarearen (gaur egungo Lizeaga sagardotegia dagoen baserriaren) jabe. Bi nagusiren eskuetan zeuden: batetik Petritegiko nagusia, Pedro Martinez de Igel-do, eta bestetik Lizeagakoa, Juan Sanchez de Arantz.



Antzina, ala izeneko ontzietan garraiatzen zuten sagardoa, Astigarragatik Donostiara, Urumean behera. Ala berreraiki dute (goiko ezkerreko irudian) eta Pasaia-ako bidea egin dute, sagardo barrikak barruan (beheko argazkietan). 2016an, duela mende batzuetako ohitura errepikatuko dute (irakurri hurrengo orriko koadroa).

Albaola Fundazioaren kolaborazioa

Albaola Itsas Ondarearen Fundazioa da, eta euskal uren, itsasoaren eta itsasgintzaren historia aztertzea du helburu. Sagardoaren bueltan hasi zen proiektu honek, baina, Urumea ibaia-

ren merkatar mugimenduarekin eta itsas munduarekin badu lotura, zeharkakoa edo zuzena. Hala, egitasmoan urei dagozkien atalak Albaola Fundazioa bera ari da bideratzen. Urumea bazterretan egon ziren portuen inguruko



LIZEAGA Sagardoak SL

Gartziategi Baserria
Martutene pasalekua 139
20014 Donostia
© 943 468 290

www.lizeagasagardoak.com

Alaren jaitsiera Urumean barrena

Sagardoa barrikatan, orain mende batzuk arbasoek egiten zuten moduan, alan jais-teko asmoa dute Urumean behera, Astigarragatik Donostiara. Baina 2016an izango da hori, Donostia kulturaren hiri-buru izendatuko dutela aprobetxatuz. Asteburu osoko plangintza dute buruan antolatzaileek, eta lanak hasiak dira dago-eneko. Egitarauan hizki handiz, *Alaren jaitsiera Urumean barrena*. Horretarako, ontzia bera, garai batean izango zenaren modukoa, berreraikita dago; portua falta, ordea. Mende batzuk lehenago gaur egungo Lizeaga sagardotegiaren parean-edo zegoen Gartziategi portua berregiteko asmoa dute, Albaola Itsas Ondarearen Fundazioak lagunduta. Bertan beteko dute ala, sagardoz betetako barrikaz, Donostiara abiatu aurretik.

Baina ekitaldia probestuz, Astigarragako hainbat eragileri asteburuan parte hartzeko ateak zabaltu dizkiete; bi sagardotegiren historia txikia oinarri, herri oso baten ibilbidea dela azpimarratu baitute antolatzaileek. Talde eta herritar guztientzat egin nahi dute txokoa, bakoitzak bere alea jarri eta guztien artean egitarau osatuagoa lantzeko.

informazioa biltzen dihardute, esaterako, eta bat berreraikitze asmotan dira. Astigarragaren eta Ergobiaren artean lau portu egongo ziren susmoa dago: Arbizu Portu (Aiozategi bezala ere agertzen da idatziren batean), Ergobia, Murgia eta Gartziategi. Azken hau, izenak iradokitzen duenez, gaurko Lizeaga sagardotegiaren (Gartziategi baserriaren) paretsuan

egongo zen, eta horixe izango da berreraikiko duten portua. Bertan ala (egurrezko ontzia) sagardoz bete eta Donostiaraino jaisteko asmoa dute, garai batean egingo zuten bezala.

Astigarragan ere geratzen zen sagardorik

Sagardo guztia, dena den, ez zuten Donostiako aberatsek eramaten. Urteko uztaren zati bat –badirudi zati horren kopurua jauntxoak berak erabakitzen zuela– baserri-dolarean geratzen zen, ez ordea gaur egun txotx denbaldian kupela irekitzen den gisan irekitzeko. Era antolatuan zabaltzen ziren sagardotegiak, bata bestearen atzetik. Herrian hainbeste baserri-dolare bazeuden, zozketaz erabakitzen zen bakoitza irekitzeko txanda; eta dolare bakoitzeko sagardoa bukatu ahala zabaltzen zen hurrengoa. Guztietako sagardoa edango zela ziurtatzen zuten horrela. Herritarrentzako irekita egoten ziren, baina jendea ez zen, gerora ohitura bilakatu den moduan, bertara jatera joaten. Pitxarretan saltzen zen zukua.

Sagardotegi batetik besterako desberdintasuna nagusien edo jauntxoaren esku zegoen, haiek erabakitzen baitzuten dolarean maizterrentzat zenbat sagardo utzi nahi zuten. Sagardotegi bakoitzean sagar-zuku kopuru ezberdina egoten zen, baina ez uztaren edo produkzioaren arabera, nagusien eskuzabaltasunaren arabera baizik.

1765ean lege aldaketa

Zozketaz sagardotegiak banatu eta merkatua erregulatzen zuen legea 1765ean aldatu zuten. Hortik aurrera, herritarrek edo erosleek ez zeukaten ordena jakin bat errespetatu beharrik, eta sagardotegiek eskaintza zabaltzen hasi ziren, *kazuelatxoak* kasu. Segur aski, inflexio puntua izan zen momentu hori baserri-dolareen eta sagardoaren bidean, eta gune hauetara aisialdian gerturatzen hasiko zen jendea. ■





POLITIKAGATIK ZERA ERRATEN BADIZUTE

HI TALIBAN HUTSA HAIZ !!!

OHORATU EGITEN ZAITUZTE:

MUNDUKO ZEIN BESTE HERRIK
JAKIN DU FUE RATZEN UNEKO
2 INPERIO GAITZENAK, ETA
25 URTEAN ?



EUSKALDUNOK MANERA POLITEZ GALDATU BEHAR
DIEGU OKUPANTEEI

NORMA
LIZAZIOA

KON
TSE
NTS
UA

ERABAKI
TZeko
ESKUBIDEA
EMANEN ?

PRESOAK
HERRIRA

LURRALDE
ELKARGOA

OFIZIAL
TASUNA

TREBIÑU
EUSKADIN

ZONIFIKAZIOA
KEN

OTOI !



**June
Fernández**



KAZETARIA

Ahal dugu?

GIPUZKOAKO PODEMOS-AHAL DUGU elkarte politiko berriaren buru izateko hamabi hautagai zeuden: hamabiak gizon-ekoak. Gipuzkoakoa ez da salbuespena izan. Alegia, Espainiako Estatuko hamar hiri nagusienetak bitan bakarrik emakumezkoak izan dira Podemoseko buru izateko hautatuak. Paritate neurriek kritika bortitzak eta isekak jaso dituzte. Emakume askok diote ez dutela kuota huts izan nahi, baina sexismoak aukera berdintasuna oztopatzen duen neurrian, meritokrazia ez da bidezkoa, ezta egiazkoa ere. Ala pentsa behar dugu Podemosen ez dagoela lidergorako gaitasuna daukan emakumezko kide esanguratsurik?

Berdintasun legeak garatu ziren arte, gizonak ziren erakunde politikoetako jaun eta jabe (80ko hamarkadan, Eusko Legebiltzarreko %80 baino gehiago). Desoreka historikoak zuzentzeko neurri positiboak (esaterako, kreamailera zerrendak) ezinbestekoak dira, baina ez dira nahiko. Errotik hasi behar dugu, zergatiak sakonki aztertu eta analisi horretatik abiatuta neurriak hartu. EUDELEk, esaterako, emakumeen gizarteratzean lidergo eta protagonismo jarrerak gizonen kasuan bezainbeste sustatu zen eta saritzen ez direla ikusita, 2012an Virginia Woolf Basqueskola ireki zuen; jendaurrean hitz egiteko tailerrez edota *coaching* saioez osatutako jabekuntza ekimena.

Traba latz batek kezkatzen nau: gizon politikariek boterearekiko daukaten atxikimendua. Paritatearen ondorioa jakin badakite: bi gizon zeuden lekuan, emakume bat sartzeko bietako batek postua utzi beharko du

Baina beste trava latz batek kezkatzen nau: gizon politikariek boterearekiko daukaten atxikimendua. Paritatearen ondorioa jakin badakite: bi gizon zeuden lekuan, emakume bat sartzeko bietako batek postua utzi beharko du. Emakumeen lehiakortasuna ekiditeko gizonak euren arteko korporatibismoz eta egune-

roko jarrera matxistez baliatzen dira. Halaber, egun ere leialtasun, aliantza eta erabaki politiko asko esparru ez formal maskulinoetan sukaldatzen dira: poteoan, futbol partidatan... Hala saiatzen dira emakumezkoak politikan arrotzak diren sentipena mantentzen.

Pasa den abenduan Caracasen egon nintzen, Venezuelako Kultura Ministerio antolatutako nazioarteko topaketa batetan, hain zuzen ere *Feminismoa, generoa eta boterea* izeneko mahai-inguru batean hitz egiteko gonbitarekin. “*Chávez no murió, se multiplicó*” bezalako leloen uneoroko presentziak “betiereko komandantea”ren (hala deitzen diote) itzalaren pisua adierazten zuen. Chávezek 2011n “iraultza sozialistak feminista izan behar du” esan zuen. Horrek eragin sinboliko izugarria izan zuen iritzi publikoak feminismoarekiko zuen jarreraren. Baina, hala ere, jardunaldi horietan gizonak izan ziren protagonistak, giza eskubideak edo kezka ekologistak edozein mahai-ingurutan aipatzen ziren, eta aldiz, emakumeen eskubideen aldeko hitzak ekimen feministetara baino ez ziren mugatu. Hau da, zeharkako apustu feminista ez zen inondik inora ageri.

Chávez baino lehenago Zapaterok ere feminismoa aldarrikatu zuen, eta orain dela gutxi Podemoseko Juan Carlos Monederok ere bere burua feminista izendatu du (Madrilgo feministei galdetu zer iruditzen zaien Monedero). Esanguratsua da lider politiko batek feminismoarekiko atxikimendua adieraztea. Baina gizon ezker-tiar askok ikur feministak astintzen dituzte euren pribilegio eta botere patriarkalera tinko oratuak dirauten bitartean. Apustu sinbolikoa onuragarria da neurri koherenteen bidez gauzatzen bada, bestela keinu hipokrita hutsa da.

Tamalez, Podemos bezalako ezkerreko elkarte politikoetan patriarkatuaren osasun onarekin topo egiten dudanean, 15-M mugimenduaren leloa –PP eta PSOERI zuzendutakoak– samintasunez gogoratzen dut: “Ez, ez, ez naute ordezkatzeko”. ■





Ainhoa Larrañaga

♦ MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Euskara eta boterea

MAX WEBERREN arabera boterea da, norbaiti zerbait inposatzeko probabilitatea, baita bere borondatearen aurka bada ere. Botereak askatu egin dezake baina baita zapaldu ere. Hizkuntza baten erabilera boterea-ekin zuzenki eta estuki lotua dago. Botereak egiten du hizkuntza bat hegemonikoa edo minorizatua. Beraz, ezinbestean lotu behar dugu euskararen egoera botere (eza)rekin.

Hona hemen Pako Aristik bere azken liburuan dioena, beste hamaika egiarekin batera “Euskararen egoera ez da hobetuko Euskal Herriak independentzia lortu arte. Bere erabilerak ez du gora egingo. Ez da sortuko bere aldeko uholde ilusionagarriarik. Aurrekontuak ez dira ugarituko, besteak beste hizkuntza gutxitu batek, automatikoki, helburu estrategikoa izateari uzten diolako”. Herri baten identitatea eraiki edo deseraikitzeke botereak daukan armarik ahaltsuena hizkuntza da.

Mezu nahasgarri gehiegi jasotzen ditugu egunero euskararen balizko normalizazioaren inguruan; mezuok, inor ez iraintzeko eta ahalik eta jende gehien euskararen unibertsora erakartzeko helburuz egiten omen dira. Menpekotasun egoera areagotzeko baino balio izan duten mezu horiek, gehienon

Mezu nahasgarri gehiegi jasotzen ditugu egunero euskararen balizko normalizazioaren inguruan; mezuok, inor ez iraintzeko eta ahalik eta jende gehien euskararen unibertsora erakartzeko helburuz egiten omen dira

ipar galtzea eragin dute, nire irudikoz. Aristik liburuan oso ongi definitzen dituen bi termino –“amnesia” eta “naturaltasuna”– baliagarri zaizkigu egungo egoera nahasia ulertzeko. Ahaztu egin zaigu, euskararen desgertze bidea, urte luzeetako dominazio eta jazarpenaren ondorio izan dela. Deshistorizazio honek memoria historikoaren galera eragin du, egungo egoerara faktore naturalen eraginez iritsi garela sinetsaraziz.

Seduzitu egin behar omen dugu jendea euskarara etor dadin, erakarri bihurtu behar dugu euskara eta euskara ikasten ez dutenei sinestarazi behar diegu altxor bat galtzen dutela. Hizkuntzen elkarbizitzaz hitz egiten ere, sarri entzuten ditugu hamaika “euskal” eragile eta politikari. Nola izan liteke hizkuntzen elkarbizitza orekatua, bata hegemonikoa denean eta bestearen suntsiketa besterik ez duenean nahi? Bi estatu inperialistek burututako kolonizazio prozesu luzearen emaitza da hau guzti hau.

Hori ulertzea ezinbestekoa da, ustezko garai politiko berriotan, bolo-bolo dabilen bestearekiko abegikortasunaren tramaz eta dramaz jabetu eta aurre egin ahal izateko. ■



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Alternatiba bakarra

PSE-EE alternatiba bakarra dela aldarrikatu berri du Idoia Mendiak eta, hurrengo hauteskundeetan atarian, gainerako alderdi guztiak ez direla baleko aukera gaineratu. Hain da zaharra eta zaharkitua estrategia, ezen narda egiteraino errepi-katu den leloa aditu hutsak nekatu egiten baitu. Eta harritu, oraindik ere, hura –urrikalmendurik gabe– erabiltzeak: lehengo lepotik burua alderdien politika-gintzan.

Saltzaile bakoitzak du salgai onena, egiatan balio duen bakarra. Ez erosi beste inori, hau bezalakorik ez duzu inon topatuko. Ni naiz bilatzen duzun hori.

Zuk baino hobeki dakit zer nahi duzun, zer komeni zaizun. Hauxe da-eta behar duzuna. Erosi: ez zara damutuko; eta damutuko bazina, dirua itzuliko genizuke. Ez izan dudarik. Hurrengo merkatura arte. Hurrengo merkealdira arte.

Idoia Mendiari entzunak genizkion hitz handiosak sistemaren berritzeaz: “Gaurko alderdiak geroko ere izanen badira, erro-errotik aldatu behar dira egiturak, pentsamoldeak, politika gauzatzeko moduak”. Urte berrian sartu gara, baina bizi-rik dirau batzuen gogo-min-gain herdoilduak. ■



Zirrikitueta

I

Nork egin du historia?
Nor dago liburuetan?
Nor esparru publikoan:
tabernan edo plazetan?
Nor kantari sukaldean,
josten, artazuriketan,
sehaskaren inguruan
edota konbentuetan?
Bertsolaritzaz idatzi
izan dute hainbatetan;
batzuk fokopean daude
beste batzuk ilunpetan...
Lau begi eta bihotz bat
jarri ditut testuetan,
ea altxorrik topatzen
dudan zirrikitueta.

XDZ



Ane
Labaka Maioz

DOINUA:

Norbere mundu intimo.

Sorta honek Erretereriako
Lau Haizetara elkarteak eta
Xenpelar bertso eskolak
antolatzen duten Zapirain
Anaiak saria jaso zuen 2014ko
abenduarien 28an.

II

Bertsoaren jatorria
hasi ezker biluzten
aitzindarien kontuak
ez du zalantzarik uzten:
Eresigileak kantuz
hildako gorpuei eusten
ta profazadorak koplak
satirikoak gorpuzten,
“desvergonzada” horien
mihia zail zen kamusAten...
Nahiz nik izkina batetik
pozik entzungo nituzkeen,
Bizkaiko Foru Zaharrak
argiki du erakusten;
emakume zirelako
isilarazi zituzten.

IV

Beste emakume batek
sorrarazten dit lilura,
“Hondarribiko Joxepa”
omen zuenak deitura.
Bere berri izatea
izanagatik jomuga
Bilintxek esandakora
mugatzten da ahanztura,
baina bera ahazteak
ez ote dio ardura?
Nahiz dirudien sarritan
irteten zela kantura,
beste guztien antzera
ikusezin bihurtu da
inon parerik ez zuen
“dama bertsolari” hura.

VI

Joxepatik Joxepara
luzatu nahi nuke soka
Hernaniko Zubeldia
daukadanez begiz jota
“Baztangaren bertsoekin”
sendotu zuen borroka
Lasarteko izurridun
gaixoen gurdien kontra.
Gizonak negozioan,
burokrazian itota,
ta emakumeak irmo
bide erdian orroka...
Tilosetan ospatzeko
bertsoz egin zuen topa
herri bazkari batean
mahai gainera igota.

III

Isiltzea xede duen
gizarte patriarkalak
hautatu ohi du nor diren
baztertuak, marjinalak...
Egitura horri sortu
nahi dizkiot arrakalak
gogoan hartuz Bizenta
Mogel zenaren ahalak.
Umezurtz bihurtu zuen
guraso hilen magalak,
nahiz alegiekin bete
orri txurien azalak,
irudimenari bertsoz
jarriagatik hegala...
aldiro irentsi ohi du
bere osabaren itzalak.

V

“Xenpelar” esanez gero
-ez baldin bada mirariz-
gizonezko ospetsu bat
agertzen da letra handiz
arrebaz eta ilobaz
oso gutxi egin da hitz
nahiz azken honek sorta bat
josi hain erantzun argiz.
Enrike Elizegi ez
zen nahastu aldizkariz
neskazaharren topikoak
Ibaizabal-en idatziz
bertsio osagabe bat
genuke ehungarren aldiz
Joxepa aurka egiten
ausartu izan ez balitz.

VII

Asteasun “Pello Errota”-k
honi ta hari jarriak,
arreba Sabinarenak
ez ziren txalogarriak,
bi alabek ere ezin
ase bertso egarriak;
hotsa atera ohi zuen
Mikaelaren “zintzarri”-ak.
Entzun nahi ez dutenean
gortzen dira belarriak,
arto aleak xehetuz
hain kriki-kraka sarriak...
ez dugu inoiz jakingo
urratu arren eztarriak
zenbat ahots estaliko
zituen errotarriak.

VIII

Zizurkil ere izan zen bertsolarien arkupe ta Pedro Mari Otañok badu nahikoa entzute onbuari jarritako bertso ezagunen truke, “Amerikako panpetan” igaroz hainbeste urte. Batzuegan hutsa dena besteengan da bertute; bere lehengusina ere gogoan behar genuke, ez Amerikako onbu, ez atariko intxaurpe... Plazidak zerri kantatzen zion jakin nahiko nuke.

IX

Ezinbestean aipatu behar Iñaxi Etxabe, oikiarrak “Basarri”-ri ez zion erantzun bare. Emakumeari buruz horrenbeste aipu grabe. Betidanik izan dira transmisioaren zutabe hark euskararen galera egotzi zien halare... “Basarri”-k bertso munduan zenbat tronu ta aldare egoki erantzuteko gaitasun onenen jabe... ta inork ez daki zeinek utzi zuen hitzik gabe.

X

Historia aldatzen da zirrikituz zirrikitu; bilatzen jardun ezean ezin da inor aurkitu. Mardarasek eta Loidik nahiz izan nahiko meritu aurrekoen ahaleginak nahi nituen deskribitu, jakinmina ase asmoz arakatu, deskubritu... Bertso sorta luze honek -nahiz ez guztiak kabitutikusezinak zirenak ikusarazi nahi ditu; inork ez dezala esan ez ziren existitu.

JURDANA OTXOA



Nora Barroso

♦ EHUko IRAKASLEA

Ez

EGUN EGUZKITSUA egiten du eta herriko plazan elkarren artean hitz egiten ari den lagun talde bat dago. Batzuk algaraka ari dira, beste batzuk aldiz, haien burua nola kokatu asmatzen dabilta. Batek keinu trakets bat eginda ondokoarengana gerturatu nahi du, baina ez du lortu. Laguna bestelako kontuetan dabil eta haren arreta lortzen ez duela ikusirik lurrera begira geratu da.

Lurrera begira dagoenarengana pertsona bat gerturatu da. Besaburuan eskua jarri eta: “Zer moduz lagunekin? Zertan ari zarete?”, galdetu dio. “Muxu bat emadazu laz-tana”, gehitu du jarraian. Lurrera begira dagoenak “ez” batekin erantzun dio. Taldeko beste kideak urduritu dira. Batek bere burua bestearen egoeran islatu ikusi du, baina isilik geratu da; halakoak berean hain dira arruntak ezen ondokoa izozturik begiratzea izan dela barneak utzi dion erantzun bakarra. Etorri berriak ahotsa altxatu eta, “aizu! emadazu muxu bat!” aginduaren ondoren “ezetz!” erantzuna jaso du. Besotik gogorago heldu eta antsietate puntu maltzur batekin lurrera begira zegoenari muxu bat ematea lortu du. Bitartean, besoen artean dagoena gorputz guztia astinduz askatu nahian dabil. Azkenean lortu du eta negarrez aldendu da.

– Zer pentsatzen duzue egoera horren inguruan?

Hasierako hitzei azalpen txiki bat gehituko diot: plazan bildutako lagun koadrila 3-5 urteko haurrak dira. Muxu eske gerturatu zaiona izeba-osaba, aitona-amona edo familiako lagun bat da.

– Eta orain, nola kokatzen ditugu gure buruak?

Gure herriko karriketan eta etxeetan sarri ematen dira horrela-

ko egoerak. Familia inguruko norbait inguratu eta muxu eske baino baimenik gabe haurrari muxua lapurtzera joaten da. Umeak, askotan, ez du muxu hori eman nahi, baina gehienetan, bere borondatearen kontra jasotzen du. Besoetan hartzen duena handiagoa da, indar gehiago du. Helduek beste begirune batekin ikusten dituzte haren desioak, beste maila batean egongo balira bezala, eta ezetza egon arren, horra doaz beso handi eta ezpain hezeak. Batzuetan “ez” esaten ausartzen da haurra, inguruko kexa eta azalpenen artean: “Barka iezaiozu, gaur egun okerra dauka”. Kasu batzuetan haurra urduri dago eta lotsaz edo etsipeenez ez du ezer esaten.

Gure herriko karriketan eta etxeetan sarri ematen dira horrelako egoerak. Familia inguruko norbait inguratu eta muxu eske baino baimenik gabe haurrari muxua lapurtzera joaten da. Umeak, askotan, ez du muxu hori eman nahi, baina gehienetan, bere borondatearen kontra jasotzen du

Gordinki, nik indar eta botere gehiago duten pertsona batzuen nahiaren asetzeari ikusten dut, maitasunarekin edo afektuarekin zer ikusi gutxi duen ekintza bat. Hori bai, handitan muxuen eta bestelako enburean aurrean “ez” hitza errespetatzea nahiko dugu. ■



GARAZI LOPEZ DE ARMENTIA
BARATZA ARETOKO KUDEATZAILEA

«Urtebetean dena ez da ondo atera, baina denetik ikasi dugu»

Gasteizko Baratza aretoak urtea bete du. Arte eszenikoen garapen eta ikerketarako gunea izan nahi du Baratza aretoak, eta Euskal Herriko dantza eta antzerki taldeen lanaren erakusleaho. Berriz ere, ekimen pribatuko areto bat bertako taldeen mesederako jarri da lanean, erakundeen jardun ezaren aurrean. Bi anaia-arreba sortzaile ditugu kudeaketa lanetan: Garazi eta Unai Lopez de Armentia.

| MYRIAM GARZIA |

Nola baloratzen duzu Baratzaren lehen urtea izan den honetako jarduera?

Oso bizia izan da. Barrukoa, hau da, guk eraman behar izan duguna, eta kanpotik ikusten ez dena, zoratzekoa izan da, batez ere ikasten geundelako, eta lehen urtea izanik, dena erai-ki behar zelako. Kanpora begirakoa apur bat motelago joan da, baina oso emankorra izan da hala ere. Alde handia dago hasi gineneko momentuaren eta urtea bete dugun momentu honen artean, eboluzioa igertzen da: gure jarduera gero eta hobeto ari gara komunikatzen, eta gero eta erantzun hobea daukagu.

Aretoa ireki eta urtebetera, hasierako helburuak bete dituzuela esango zenuke?

Horietako asko bete ditugula esango nuke, baina egia ere bada oraindik asko daudela betetzeke. Dena den, ez genuen espero urtebetea betetzerik. Bestalde, badaude bestelako helburu batzuk bidean sortu direnak, agian gehienak. Izan ere, oso era *kamikazean* sartu ginen honetan eta zer ekarriko zuen oso ondo jakin gabe.

Gasteizko arte eszenikoen inguruko mugimenduaren isla dela esango zenuke?

Ez, Gasteizen nahiko mugimendu polita dago. Bada honetan urte asko daramanik, baita oso kontu aberatsa sortzen ari direnak ere, gogor eta gogoz datorren jendea. Baina egia da Baratza bezalako espazioa oso ondo datorkiola arte eszenikoen panoramari Gasteizen. Horren mailan egotea zaila da eta espero dugu tokatzen zaigun rola ondo betetzea.

Garrantzitsua da esatea Baratzako kudeatzai-leak sortzaileak ere bazaretela. Erakundeek eta bestelako aretoek betetzen ez duten hutsunea betetzen ari zarete?

Gasteizen eskaintza oparoa dago arte eszenikoei dagokionez, baina batez ere, antzerki klasikoan dago handiena. Azken urteetan



programazio arriskutsuagoa ekar-
tzen digute zenbait taldek –Factoría
de Fuegos, Monstrenko Kolekti-
boa...–, eta gure aldetik, sostengu
handiagoa ematen zaie, urte osoan
programazio iraunkorra egitea nahi
baitugu. Beraz, jadanik bazegoena ari
gara osatzen.

**Gero eta gehiago dira kultura kudea-
tzen duten sortzaileak. Sormenetik
erakusketara dagoen prozesu osoa
kontrolatzea garrantzitsua da? Auke-
rak zabaltzen dira?**

Denbora ikasten eta ikertzen ematea
ezinbestekoa da, bestela nola ebo-
luzionatu? Material artistikoa sortzea,
gehienetan, ez da iluminazioaren
kontua, lan sakonaren eta denbora
luzea eskaintzearen ondorio baizik,
konpromezu handia eskatzen du.
Erakusten dena erakutsi ahal den
aukera bat baino ez da. Egindako lan
horren egira eta zintzotasunera
gehien hurbiltzen den materiala era-
kusten saiatzen gara, baina azkenean
garrantzitsuena aurretik egindako
lana da. Kudeaketan akatsak eta
gauza interesgarriak aurkitzen dituzu
eta horiek izango dira bidea irekiko
dizutenak.

**Ikastaroak, programazio iraunkorra,
antzerki eta dantza taldeen topalekua,
artisten egoitzak... Urte betean gauza
asko egin dituzue.**

Bai, urteak egun asko dauzka, eta
atsedena gutxitan hartu dugu. Dena
ez da ondo atera baina, denetatik
ikasi dugu.

Gasteizko publikoak ezagutzen al du Baratza?

Gero eta publiko zabalagoa du eta horixe
izan da nire pozik handienetakoa bat, urtean
atzera begiratuz gero. Oinarri sozialak esa-
nahi berezitua ematen dio, baina hasieratik
begiak oinarri horri jarrita bagenituen ere,
zentzu horretan oraindik garatu ez diren zen-
bait kontu dauzkagu zintzilik.

**Gasteizko edota Euskal Herriko antzerki eta
dantza taldeei baliagarri zaie Baratza aretoa
euren lanak erakusteko orduan?**

Baietz uste dugu, baina horretarako denbora
behar dugula uste dut. Beren lana aurkeztu
duten taldeak ez dira horrenbeste oraindik,
baina bertatik pasatzen direnak gustura ego-
ten direla dirudi. Gure aretoa txikia dela ere
kontuan hartu beharrekoa da gainera, denek
ez dutela tokirik.



**“Denbora ikasten
eta ikertzen ematea
ezinbestekoa da,
bestela nola
eboluzionatu?
Material artistikoa
sortzea, gehienetan,
ez da iluminazio
kontua izaten, lan
sakonaren eta
denbora luzea
eskaintzearen
ondorio baizik”.**

**Ekimen pribatua da zuena, nahiz eta irekia
izan. Non dago erakunde publikoen laguntza?
Ekonomikoa al da soilik?**

Hasieran dirurik ez bagenuen ere, egia da
paper kontuak arindu zizkigutela. Zenbait
politikari gure alde egon dira hasieratik, eta
gaur egun diru-laguntza handiak ditugu.
Gasteizko Udalarekin hitzarmen txo
moduko bat dugu, urteko jarduerari begira-
da bat emanez gero, gutxirako ematen
duena, baina laguntza horri esker zenbait
gauza egin ahal izan dugu. Bestetik, Eusko
Jaurlaritzako Sormen Lantegien programa-
tik diru-laguntza mardulagoa etorri zaigu
bigarrenez. Horrekin, Unaik [Lopez de
Armentia] esaten duen bezala, Olentzarori
gutuna idazteko ematen digu
eta Baratzara ekartzen duguna
maitasunez erabaki ahal dugu,
urteko epe labur batean behi-
tzat. ■



Hego-hegoaldeko euskaldunen nortea eta konortea

Diasporak bere ditu urrunaren estereotipoa, folk mindua eta mus txapelketak. Horien bila joaten denak ez ditu Montebideoko Aldaxka elkartean atzemanen. Bertan, laugarren belaunaldikoek beren burua aurkitu dute Euskararen mirail dinamikoan.

| ASISKO URMENETA |

BI ESTATU HANDIREN ARTEAN, hiru milioi pasa biztanleko herri bipila. Ezaguna egiten zaizula? Horra hor Uruguai, bere gain bezain burujabe, Brasil eta Argentinaz inguratutik. Estatu laikoa sortzez eta kirolez, bidaia-agenzietako jomugetatik bazter, bertakoen izaera dauka aktibo baliosena. Zera, barka, jatorrizko bertakoak errepublika sortu berriak akabatu egin zituen arraheinki; eta azken txarruak –hala baizeritzaten– Europako zirkuetan ibili zituzten 1830eko hamarraldian, ñandu pareta lagun.

Honenbestez, txarruen eta guaranien arrastoa ez duzu toponimian eta azpegi batzuetan baizik kausituko.


Mestizaia eta fusio arrakastatsuen ondorioz, jatorri europarra du nagusiki Uruguaiako biztanleriak: Espainia, Italia, Euskal Herria.

Aldaxka elkarteko kideak. Eskuinean, Leonat Egiazabal Lehu.

Eta izan ere, euskal presentzia biziki present dago. Han, euskaldun izenak adjektiboaren kategoria ere hartzen du: Bai, ni euskaldun xamarra naiz, vasco berdin burugogor izanki. Haurrek Vascolet edaten dute, eta nagusiek El Vasquito. Lehena, txokolate-hautsaren marka klasikoa, gerora Nestlék eresia, eta bigarrena ardo arras popularra. Muxika ez dugu gurutzatzerik izan, ez eta Galeano ere, baina Montebideon ezagutu ditugu Eizaga, Mendiharatz, Fagalde leinukoak, taxi ostatu eta merkatuan.

Euskal Herriko historia kritikoa egitekoa baita beti, lirikara jo dugu migrazioaren kasuan ere, zio politikoak aztertzeke partez; eta denboran, Uruguain atzeman ditugu Iparagirre urretxuarra, Oxalde bidarraitarra, eta Mendiaga aldudar-hazpandarra. Azken





honek honako bertso hauek paratu zizkion Iriarte Borda, orduko presidenteari: Ez zirela bakarrik vasco arropetan/ Euskaldun odola duzula zainetan.

Aldaxka Elkarteko partzuerrek alde egin dute euskal etxeetatik. Nonbait, jarrera txarra egotzi zaie euskaraz mintzatzeagatik. “Horrez gain, frekuentzia ezberdinetan gabiltza” diosku Leonat Egiazabal, Lehu, aldaxkakideak “Haien jomuga sosa eskuratzea da, baina ez dute proiektu zehatzik. Guk berriez, Euskara dugu iparra, eta euskal erroen arrapiztea bitarteko”. Elkartearen indarrak galde-turik, “Euskararen Eguna kari, 40 lagun elkartu ginen programa tinkoaren inguruan. Urtebete baizik ez daramagu martxan, eta honez gero dozena bat lagun biziki inplikaturik ari gara, balore kolektiboak lantzen eta hedatzen”. Joan den abenduan Euskal Zinemaldia antolatu dute Uruguaiako Zinematekarekin batera: 10 film euskaraz, espainieraz azpitolatuak, eta 2 zuzendari konbidaturik bertan; hitzaldiak unibertsitatean, hango eta hemengo sortzaileen topaketak, eta horiek guztiak Montebideo publikoaren arropostu onez. Beste inongo parekorik bilatu nahi izatera, Hazparneko Zinegin litzateke haren haurride txipia. Montebideo 10.000 kilometrorra dago Kursaalera tapiz gorritik, Cape Town baino hegoalderaxeago. Alta, iparra argi: “Koxe Mendiagak Rio de la Platan sortu zuen Euskal Etxean boza emateko, euskalduna behar zen izan. Hots, euskaraduna, polise-miarik gabe. Berriki antolatu dute hitzaldia Mendiagaren etxean Euskal Herria esplikatze-ko, eta Fernando Savater dute ekarri”.

“Jinen da gure aldia” zioen fundatzaileak, zer sentituko ote zukeen egoitzaren atarian

hiru banderok ikusirik: ikurriña, espainiarra eta asturiarra”. Diaspora antolatua zen zentu-hustearen marka, sukar berria hedatzen ari da euskal etxeetan: paellada. Horretarako milaka euro xurgatzen omen dira eusko erakunde publikoetatik. “Har eta har, kolonia baten gisan. Guk eman egin nahi dugu, hartu duguna euskal mintzaidegoari itzuli, haren parte baikara”.

Izen, eta ez izan?

Lehuk, beste hainbakanek bezala, euskaldundu du bere burua. Haren aitona aitona Irundik, eta amaxiren amama Ortzaizetik jin ziren Ameriketara; eta haien arrastotik hasi zen aspaldi, ikerka. “Nik 18 urtean euskal kolektiboa ezagutu dut, gerrako iheslari zaharrak, eta bertako euskaldun haiek. Gero etxean, amaxik hitz bixi batzuk tartekatzen zituen, arkano gisa: profesora gezurra, ipurdi-beltza, pitiri, eta holako”. Familiaren deituraren esanahiatik hasi zen bila, gero etorkia aztertu, azkaziekin kontaktatzea ere erdietsi zuen... “Orduan nintzen hasi arbasoen euskara ikasten, hemengo euskaldunberri batekin hastapenean, eta Lazkaon gero”. Barnetegian eman 7 hilabeteotan ordea, ez zen bidea bururatzen; komunitate konplexatua aurkitu omen zuen European. Hizkuntzarena ez baita deuseria: “Gerran gara, eta konfliktoa egunerokotasunean da irabazten, edo galtzen. Guk etxean jokatzaren dugu, eta garaitzera atera behar gara... Baina ez”. Gerra horretan

hitza daukagu arma, baina estrategiarik ez: “Gehien-goan zaudetenean, gutien-goaren alde egiten duzue; eta gehiengoa galtzen duzuenean autourrikalmenduan itotzen zarete”. Eta egoeraren diagnosis gordina gero: “Bi hizkuntza ukipenean direnean luzaz, batak ordeztzen du bestea. Ez ikusiarena egin dezakegu, baina lausotzen ari gara, lurruntzen, desagertzen”. Hitzak norabide bakarrean sartzen dira, mintzaje batetik bestera beti; gero espresioak, ondorean esaldi osoak. “Plazer egin nahi diozue erdaldunari, eta zuen burua apaltzen duzue, hura gainetik pasa dakizuen”. Irakasle anitzek, etsiaren etsiaz, azterketa gainditzen irakasten dute. “Hizkuntzaren maila, *por el puto papel* ikastera derrigortuak diren funtzionario publikoen eskakizunaren arabera da: eskaxa eta herbala”. Eta lengoia horixe daukagu eredu: “Euskara sanoaz mintzo denari *kaxero* erraten zaio, eta goi mailako hizkera darabilenari, ponpoxo eta pedante”.

Egiazabalen arabera, aldiz, esparruak zabaldu egin behar ditugu: “Ghettoak gainditu, hiztunen ahulezia sendatu”. Espainieraren makulua ezinbesteko egin omen zaigu “ikusi bestela bertsolarien finala. Euskara hutsa ez zaizue aski nonbait, eta espainieraren dialektalizaziora jo duzue”. Lehuk bizitu egin zuen hori, Lazkaoitik Ortzaiztera joan zenean: “Alienigenak zitzaizkidan bertako ene senideak; alta, euskaldunak ziren, eta garbiak gero!” Hondoan, sakoneko gaia: “Batua lanabes baliosoa da, baina oraingo egunean bi batua dauzkagu, Pirinioaren alde banatan. Estatuaren egitura administratiboa onartu eta onetsi egin duzue erlijioski, eta mugaren orban barnatzen duzue egunez egun”.

Barre zarata bezain batua, irri azantza

Hiztegiei begirada botatzea bezalakorik ez dago, Zazpiak Biga direla ohartzeko: Ipar Euskara/Frantsesa, eta Hego Euskara/Espainiera. Ez dago Lapurdi edo Nafarroa Behereko Euskara, espainierarekin aldezturik duen hiztegiarik. “Gure azkaziek komunikatu nahi genuen, eta frantsesez ez jakin. Lhanderen hiztegia arakatu genuen, hameka klasiko, paper zahar, kantutegi; eta Rio de la Platako espainierarekin dugu erkatu. Eskubide osoz, eta praktikotasunaren ize-



nean, Batua bat eta bakarra egitekotan: Nork erran lezake zarata dela batua, eta azantza euskalkia?”. Bidearen luzea, desikastea: “Hori erakatsi ziguten, mugaren logikatik betiere. Desikasi beharreko logika beretik: Iparralde eta Hegoalde bereizten dituenak iparra galdua du; aurreiritziz eginiko murru hori desegin behar dugu”.

Honez gero, ments zuten Ekialdeko hiztegia bururatzten ari da Lehu: dagoeneko 5000 sarrera baino haboro ditu, eta beti berriak biltzen ari. Inoiz argitaratzekotan, badute non egin: Paulo Matontek, Popolgorri, familiako inprimategian egiten du lan. Bera ere Aldaxkako talde eragileko partaide dugu. “Ni beti aitaitarekin identifikatu izan naiz: langilea, isila.

Gure azkaziak Pagolatik jinak ziren, Agerretarrak; Bordaberri diktadorearen aitaxirekin batera etorriak”. Paulok argitaratzen ditu Aldaxkako komunikazioak, afitxeak eta flyerak.

Diego Lorenzo, Peteko, taldeko diseinatzailea da, eta euskal errorik ez izanagatik ere, Aldaxkaren dinamikak erakarriak hurbildu da euskal mundura, uruguaitar anitz bezala. Umorea eta sorkuntzaren bideak jorratzen baitituzte elkarrekin, Hizkuntza biziberrituz: Herrialdeko toponimia apokrifoa asmatua daukate. “Bromaren giblean serioak gara, euskaraz pentsatzen saiatzean egunerokotasunean. Euskalduna izatea gaur kontziente izatea da. Boterearen indar konzientziziale ororen gainetik”. Birusaren aurkako talde klandestinoa armatu

dute: EPA (Euskadi paellaren Aurka). Klasikoak orraztu dituzte, eta haien twittak tixertetan inprimatu, epelen akuilagailu.

Erljioa ere abiatu dute “Parabisu bakarra gizakia bere osotasunean izaki, eta euskara gakoa, egungo gizaki hits hau berriz osatzeko”, eta horretarako “Etsai borrokatu behar da egunero, bertsio eguneratu batean: erdazalea eta euskararen mespretxuz jokatzeko duena, paellazalea, vasco-frances, edo español, edo celta, reptiliano, anunaki... Baikortasunez beti eta etsitu gabe, euskal hitza eta umorea beti ahoan”.

Europako panpa urrun haue-tatik, ez ote ditugu hego-hegoaldetar hauen karkaila-azantza ozenak bezain deskonplexatuak entzuten? ■



Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.

Haur eta Gazte Literatura

Ur: Euriaren liburua.
Juan Kruz Igerabide

Irudiak: Elena Odriozola
Musika: Oihane Igerabide
Denonartean, 2014



Jolasten jarraitzeko gonbitea

NOLA DEFINITU jolasak, musika, liburua, irudi solteak... jasotzen dituen produktua? Horixe baita kutxatxo marroiaren barnean Denonartean argitaletxeak eskaintzen diguna. Juan Kruz Igerabideren testuak, Elena Odriozolaren irudi solte ugari eta CD bat musikaz, errezitatutako ipuin eta poemaz osatua, koro, musikari, interprete ugariren lana batuz. Nik sorpresa moduan definituko nuke. Uste-kabe atsegin eta polita.

Kutxan bada liburuxka txiki bat guztiaren berri emanez eta jolasetarako gonbitea luzatzen duena: "Liburu hau txikitako euri-jolasen oroitzapenetatik jaio zen. Elena Odriozolaren irudi hauek testuekin euri-jolasean jaio ziren. Oihaneren musika hau euri doinuekin jolasean jaio zen. Grabazio hau lagun arteko jolasean jaio zen, hitzaren euri-festa batean".

Ezustekoen kutxa hau euri-jolaserako gonbita duzu, mundura "euri-ekarri" eta bere itsasora garamatzen bizitzarekin jolasteko. Haur, guraso, eta lagun ugari bildu gara, testuak grabatuz jolastera, ontzat eman arte errepikatuz, hitzaren zirrara sentituz. Euriaren eta bizitzaren jolas gisa jaio zen honekin jolasten jarraitzera gonbidatzen zaitugu ba."

Eta horixe da kutxatxo. CDaren lehen kanta *Bada-tor euria* izeneko Kenyako kantu herrikoia dugu; ondoren liburuan ageri diren testu eta poema batzuen errezitaldia. Izan ere, liburua ipuinez eta poemez osaturik

dago, *Ur, erori nahi ez zuen tanta* liburuko protagonista tanta horixe da, baina tanta horren hainbat gorabeheren ondoren (bai eta hauetan tartekaturik ere) badira euriarekin zerikusia duten zenbait poema, gehienak laburrak, hiru bat lerrokoak, beste batzuk pixka bat luzeagoak: "BESTERA BEGIRA./ Eskolako lanak egin ordeztu,/ sor eta lor zaude/ euriari begira;/ aita, ahapeka,/ jarraitzeko eskatzen dizu,/ baina euriak hobeto xuxurlatzen du". Metafora hutsak diren poema laburrak ere badira: "Kristalezko matxinsaltoak:/ Euria"; edo lurralde urrituetara eramaten gaituztenak: "AFRIKAKO GAUA EURIA EGIN ONDOREN. Neskatila beltzaren begiak/ izarrez beterik;/ zerua hegan dator/ oso behetik".

Juan Kruz Igerabideren testu hauekin batera kutxak Elena Odriozolaren lamina ugari dauzka; batzuk paperean eginiko irudiak, beste batzuk plastikoen marraztutako euriak, "arinenetatik hasi eta mardul eta zeharkakoetaraino", bi irudiak, paperezkoak eta plastikozkoak batuz jolas dezagun, irudi ezberdinak sor ditzagun.

Ur: Euriaren liburua lan ederra irakur, entzun eta jolas egiteko gonbitea da. Baita hemen ageri izan diren irudi, poema, ipuin eta kantuen antzekoak sortzera ere. ■

Xabier Etxaniz Erle



bag-a-bi-ga
sendotasuna
musikan

MANAGEMENT: (+34) 618 072 076

bag-a-bi-ga musika idetak
tel. 618 072 076 / 026
www.baga-bi-ga.com / info@baga-bi-ga.com

KORRONTZI
SYMPHONIC BILBO

ETS

TXAPELPUNK
Los amigos de los puntos

HESIAN
Hizakale estirak

DOCTOR DESEO

VENDETTA
13 BALS

EMON

XAIKO

ESKEAN KRISTO



Bihar ez da gaur
Bonberenea Txaranga
Bonberenea Ekintzak, 2014.

Beti aurrera begira, giro ederrean

BONBERENEA TXARANGA ez da ohiko txaranga bat. Bere piezetan jazz, rock, Karibeko aireak eta beste batzuk antzeman daitezke, baina bere jarrera edo jarduteko modua da azpimarragarria. Musikariak gazteak dira, batzuk oso gazteak, beren musika tresnak ongi menperatzen dituzte, eta aipagarria da haien etorria, gatz eta piperra, eta bizitasuna. Jai-giroa eta alaitasuna ederki transmititzen dute, umore ona eta giro ederra, azken batean. Gainera, diskoaren izenburuak dioten bezala, beti aurrera begira daude, beti melodia, erritmo eta doinu berriak bilatzen.

Bonberenea Txarangaren etengabeko garapenaren eta bilakaeraren azken mugarrira da *Bihar ez da gaur* lana. Zortzi pieza dira, denak txarangako kideek beraiek sortuak, bat izan ezik, Dut taldearen *Unean uneko* kantuen bertsioa egiten baitute. Ez dira txaranga baten kalejirak, fandangoak eta habanera, ur berri batzuetan igeri egiten dute, estilo edo joera berrien beldurrik izan gabe, beren eredu txaranga ulertzeko modu berri bat baita.

Grabazio saioetan, Iker Pando (gitarra), Ivan Alzate (baxua), Ekhiñe Olano (tronpa), Sorkun Rubio (ahotsa) eta Juantxo Arakama (ahotsa) aritu dira txarangako musikariek. Juantxo Arakamak berak *Gara(i)pena* kantuko hitzak idatzi ditu, eta Ion Arruebarrena txarangako kideak *Argitzalak* kantuko

hitzak. Izan ere, diskoko sei pieza instrumentalak dira eta beste bi pieza kantuz lagunduak. Karlos Osinaga teknikaria arduratu da grabazioaz, nahasketez eta masterizazioaz, eta Mikel Zelaia Bonberenea Txarangako kidea berarekin aritu da. Diseinu lanak, berriz, Joseba Poncek egin ditu. Lan handia egin dute denek, disko eder bat osatzeko, patxadaz entzun eta gozatzeko disko bat.

Bonberenea Txarangak Tolosako (Gipuzkoa) Bonberenea etxean dauka egoitza. Urte batzuk badaramatza Tolosako eta beste hainbat herritako kaleak alaitzen, eta beste zenbait talderi eta musikariri grabazio saioetan eta jendaurreko emanaldietan laguntzen.

Bihar ez da gaur haien laugarren diskoa da. Aurreko hirurak dira: *Pirritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea Txaranga* (Bonberenea Ekintzak, 2011), *Rocka ta urrezko komona* (Bonberenea Ekintzak, 2008) eta *Bonberenea Txaranga* (Bonberenea Ekintzak, 2005).

Haurrek, gazteek eta helduek ederki pasatzen dute Bonberenea Txarangaren kalejiretan eta beste-lako saioetan, irribarrez eta dantza batean edo gorputza mugituz, bere martxa alaietan. Segi horrela! ■

Joxi Ubeda



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!


mobiletik euskaraz

gure artean euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gaia: Donostiako auzoak



Soluzioa

Aurki ezazu hitz ezkutua,
zenbakiak hitz bakoitzeko
zenbat hizki daukan adieraz-
ten duela kontuan izanik.

LOGIKA: Ander: ura. Unax: kafea.
Jon: garagardoa. Unai: ardoa.
DEBUNKZIOA: Gertu.

M	A	L	K	O	0
S	A	T	O	R	2
M	O	Z	L	E	1
G	A	Z	U	R	3
L	E	M	O	A	1
K	L	A	S	E	1

--	--	--	--	--

						J	A	K	I		O					
						L	T	S	A	I	A	K				
					B	E	R	A	K	A	T	Z				
H	A	R				G	R	O	S		Z	L		H	A	R
R	O					L	I	A	O	N	I	L				
						D	A	T	A		O	N	A	K		
						Z	A	R	M	A	X	I	M	O		
						G	O	T	E	L	E	Z	A	H	A	R
						Z	I	R	I	T	U		U		O	
						G	A	R	A	U	A	K				
						B	A	K	E	Z	A	L	E			
						H		H		H		A				



Black is beltza komikiko marrazki bat. Izen bereko proiektua kari, Harkaitz Canoren hitzaldia eta Fermin Muguruzaren eta Ruper Ordorikaren arteko topaketa antolatuko dituzte.

Bi beltz badiako kaian eserita

BLACK IS BELTZA nobela grafikoaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte Bilbon, Alondegiko erakusketa zabaldu zenetik. Izan ere, *Black is Beltza* ez da nobela eta haren inguruko erakusketa soila, proiektu zabala baizik. Musikariak, idazleak, marrazkilariak eta abarrek esku hartu dute ekitaldiotan eta, bakoitzak bere ekarpena egin dio Fermin Muguruzak eta Harkaitz Cano idatzi eta Jorge Alderete argentinarrak marraztu duen nobelari. Garai jakin baten inguruan murgildu dira parte hartzaileak, XX. mendeko 60ko hamarkadaren aztarretan gertatutakoan hain zuzen, eta orduko mugimendu politiko eta soziala, musika eta kultur iraultza, munduaren eraldaketaren alde eta arrazakeriaren kontra borrokan aritu zirenen gaineko kanta osatu dute, garai hartako soinu banda, Otis Redding-en *Respect* kanta ardatz.

Urtarrilean izango da oraindik erakusketaz eta ekitaldiez gozatze-ko parada. Horietako bi ekarri ditugu orriotara: Harkaitz Canoren *Fruitu Arraroak* errezitaldia eta Ruper Ordorikak eta Fermin Muguruzak izango duten topaketa, *Otis Redding Badiako Kaian eseri zen* izenpean egingo dena.

Harkaitz Canoren errezitaldia, *Fruitu arraroak*, urtarrilaren 16an izango da. Uste denez, fruituak

BLACK IS BELTZA

Fruitu Arraroak

Hizlaria: Harkaitz Cano.

Noiz: urtarrilaren 16a.

Non: Bilboko Alondegia.

Otis Redding Badiako Kaian eseri zen

Topaketa: Fermin Muguruza eta Ruper Ordorika.

Noiz: urtarrilaren 22a.

Non: Bilboko Alondegia.

zuhaitzetik gertu erortzen dira baina ez da beti hala izaten arbola maldan behera dagoenean. Horrelakoetan litekeena da fruituak arbolatik urrun azaltzea. Harkaitz Canoren ustez, halaxe gertatzen da artearen munduan ere.

Aski ezaguna dugu idazleak duen musikarekiko zaletasuna, bere literaturan musikaren erreferentziak behin eta berriz agertu izan baitira. *Black is Beltza* nobela grafikoaren gidoia ere horren adibide dugu, komikian etengabeakoak baitira garai hartako musikari, kanta eta jaialdi erraldoien erreferentziak. *Fruitu Arraroak* errezitaldian nobelan ins-

pirazio iturri izan dituzten kantak, eta alderantziz, kantei inspiratu dituzten nobelak eta filmak izango dituzte mintzagai. Zinemak, musikak eta literaturak etengabe elikatu dute elkar, idazlearen ustez.

Bigarren hitzordua urtarrilaren 22an izango da: Ruper Ordorikaren eta Fermin Muguruzaren arteko topaketa musikatua. *Otis Redding Badiako Kaian eseri zen* izenpean, abeslari biek elkarrekin jardungo dute. Bernardo Atxagak idatzi eta Ruper Ordorikak abesten duen *Berandu dabilta* abesti ezaguna eta profetikoaren inguruan murgilduko dira solasaldi musikatuan, Otis Redding Badiako kaian eseri zeneko hartan, hain zuzen ere. Ordorikak musika beltzaren eragina, kantak egiteko duen eskarmentua, bertsioak egiteko plazera, eta dibertsioak zein intuzioak bideratutako jolas eta gutiziak izango ditu mintzagai.

Hitzordu biak Bilboko Alondegi-ko lehen solairuan izango dira, Jarduera Osagarrien Zentroan, erakusketa bera paratuta dagoen espazioan, hain zuzen. Sarrera doakoa da baina gonbidapenak aldeztu aurretik ere eska daitezke nahi izanez gero, Alondegiko Infopuntuan. ■

Myriam
Garzia



Kitosanoa, jakiak estaltzeko material alternatiboa

JAKIAK BILTZEKO erabiltzen diren plastikozko ontzi eta estalkiak ingurumen-arazo larria dira. Gainezka ditugu ibaiak eta itsasoak, eta arrain askorengan ere erruz aurki ditzakegu halako materialak. Petroliotik eratorritako plastikoez 100 eta 400 urte bitarteko epea behar dute guztiz degradatzeko; eta nonahi daude, gure bizimoduaren funtsezko osagai bilakatu dira eta.

Alternatiba bilatzeko ikerketa ugari egiten da, horien artean Itsaso Leceta EHUko ingeniari kimikoak zuzendutakoa. Lecetak eta beraren lantaldeak kitosano izeneko materialarekin proba saioak egin dituzte. Ikusi dutenez, harekin estalitako elikagaiek –ikerketarako azenarioak erabili dituzte, zehazki– luzeago gordetzen dituzte beren propietateak. Izan ere, kitosanoak mikrobioez babesten ditu. Eta biodegradagarria da, krustazeo azalez eginda baitago.

Bide luzea dago egiteko, halere. Laborategiko probetan emaitza onak lortu dira, baina Lecetak gogorarazi du kitosanoaren ekoizpen masiboa urruneko helburua dela oraingoz. ■



EHU



Depresio arrisku handiagoa pubertarora lehenago iritsitakoengan

Illinoiseko Unibertsitateko (AEB) Karen D. Rudolph psikologoak zuzendutako lantaldeak lau urteko ikerketa lana egin du 160 neraberekin. Behatu dutenez, pubertarora lehenago iristen direnek arrisku handiagoa dute depresioa izateko. Neskengan lehenago agertzen da arazoa mutilengan baino.

ttiki.com/240681
(Gaztelaniaz)

Telebistak, tabletek eta smartphoneek loaldia murrizten dute

Massachusettseko 2.048 ikasleekin egindako ikerketa batean, smartphoneak eta tabletak euren geletan zituzten ikasleek gainerakoek baino 21 minutu lo gutxiago egiten zuten gauero. Gelan telebista zutenei, berriz, hamazortzi minutu murrizten zitzairen loaldia.

ttiki.com/240688
(Frantsesez)

Landarez egindako hormak, zarata gutxitzeko egokiak

EHUren Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan ikerketa bat egin dute, landare-moduluz egindako hormak soinu xurgatzeko egokiak ote diren aztertzeke. Emaitzak oso onak izan dira, baina momentuz eraikin berezietan baizik ezin daitezke erabili halakoak, landareak horma gisa erabiltzeko haztea zaila baita.

ttiki.com/240695
(Euskaraz)

2015. urteak zer ekarriko digun

NASA



New Horizons espazio-zunda Pluton ingurura iritsiko da aurten.

HASI BERRI DEN URTEA oparoa izango da zientziarekin eta teknologiarekin zerikusia duten albistei dagokionez. Hona hemen adi jarraituko ditugun zenbait gai:

Martxoan Fukushima istripuaren urteurrena gogoratuko dugu; halaber, zentral nuklearraren inguruko berri interesgarrienak ekarriko ditugu orrialde honetara.

Espazioari ere arreta eskainiko diogu. Aurtentzatez ere Plutoni begira jarriko gara, NASAREN New Horizons zunda haren ingurura iritsiko baita. Gutxi gorabehera aldizkari hau zure eskuetara heltzeaz batera hasiko da

New Horizons planeta nanoaren irudiak hartzen.

Naturak eta medikuntzak etengabeko informazio iturria izaten jarraituko dute. Klima aldaketaren ondorioen berri izango dugu, batetik; bestetik, ama zelulen inguruko ikerketak berri onak emango dituelakoan nago.

Euskal Herrian, berriz, bi gai nagusi izango dira: EAEko ikerketaren eta berrikuntzaren dekretu berria –2020rako helburuak ezarriko dituen–, eta hondakinen kudeaketaren alorrean izango diren albisteak. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Edertasuna bai

ESAN ZAION ZERBAITI entzuleak ameto ematen diola edo egokia dela iruditzen zaionean bai beharrean *beleza*, hau da, “edertasuna” erantzuten duen herrian ibili naiz. Telefonoak medio gure artean nagusitu den “ok” motzaren aldean ederra. Edertasuna, alajaina. Baietzaren edertasuna, ahoa neurri, ahoz aho, bolo-bolo guztien aho mihietan darabilen herria, bai. Ez da harritzekoa, tximeleta urdin-urdin eta berde bizi eta txori gorri artean bizi dira. *Beleza*.

Natura ederra da han, gure amonak “eder” hitzari ematen dizkion zentzu guztietan: ikusgarria eta handia, polita eta galanta. Paisaia ikaragarriak bizitzen dituzte. Baso gehienak oihanak dira, landuga-beak, “primarioak” deitzen direnak: eraitsi eta landatu gabeak, alegia. Landare erraldoiak nonahi, batez ere zuhaitzak.

Fruituak soilik hartuta, ilargial-

di eta erdian ezagutu ditudanen formak eta dastak memorian txertatzeko bizitza oso bat beharko



Manga, mangueiraren fruitua (*Mangifera indica*).

litzateke, izenak gogoan ditut, orde: palmondoetako koko, patoa, buruti, açai, abacaba, tucuma eta pupunha, eta naja, pitomba, inga de macaco, jarina, jenipapo, tapereba, mamao edo papaia, castanha do Para, cajú eta castanha do cajú, amendoim, banana cumprida, inanjá, mucajá, jupati,

patowa, paxiúba, morototo, abacaxi, manga, acerola, goiaba, maracujá, cupuaçu, graviola, ameixa, cambucá, figo, guarana, limao, marmelo, pitanga, abacate, amendoa, caqui, framboesa, murici, jabuticaba, maçã, melancia, roma, amora, fruta do conde, melao, sapoti, abiu, araçá, cereja, kiwi, morango, tamarindo, banana, laranja, mangaba, pera, tangerina, damasco, grunxama, lima, pessego, uva, jaca, murupi, carambola, quiabo, maxixe, chuchu, kino, eta abar...

Haserre bai, hango lurra. Oparotasuna eta aberastasuna. Alexander von Humboldt naturazale prusiarrek esan zuen bai, XIX. mendearen hasieran: “Amazonas humanitate berri baten sorlekua izango da”. *Beleza*, Brasil. Bai. ■



Zimelkor

LANDARE BATZUEK ohitura berezia dute: zimelkorak dira, martzeszenteak. Hostoak zimeltzen dira, baina ez dira erortzen eta hurrengo udaberria iritsi artean bertan zintzilik irauten dute. Izerdi berriak begiak puzten dituen txortenen heldulekua hautsiko da, eta erori. Ametza (*Quercus pyrenaica*) eta erkametz (*Quercus faginea*) dira zimelkor ezagunenak. Xarma (*Carpinus betulus*), gaztainondo (*Castanea sativa*) eta pago (*Fagus sylvatica*) batzuek ere joera hori erakusten dute. Ederki jantzita igarotzen dute negua zuhaitzok. Argazkikoa Zeraingo Ostatuko pago hesia da, oraintxe dotore. ■



Elektrizitatea sendagai Antzinaroan

NATIONAL GEOGRAPHIC



Antzinako Grezian eta Erroman arraien (argazkian) eta ikaraioen deskarga elektrikoak erabiltzen zituzten sendagai: buruko minerako, hezueriarako... Egiptoarrek, aldiz, eskuragarri zuten arrain elektrikoa baliatu zuten: Niloko arrain katua.

GREZIA, K.A. VI. MENDEA. Miletoko Talesek ikusi zuen substantzia erretxinatsu horixka batek, zapi batez edo animalia larruz igurtzita, objektu arinak erakartzeko propietate bitxia lortzen zuela. Substantzia hura anbara zen, grekoz *elektron*. Antzinako greziarrek ez zeukaten fenomenoaren azalpenik, baina horrek ez du esan nahi hari probetxurik ateratzeko gai ez zirenik; badirudi zenbait tokitan anbara erabiltzen zutela arropan itsatsita geratzen ziren hosto eta belar lehorrak kentzeko.

Zenbait arrain espeziek harrapakinak durduzatzeko eta, hala, erraz ehizatzeke eragiten dituzten deskarga elektrikoak azaltzen ere ez zekiten, baina etekina atera zieten berdin; nagusiki, buruko mina arintzeko erabili zuten zenbait arrainen ezaugarri ebolutibo bikain hura. Egiptoarrek Niloko arrain katua edo silurua erabiltzen zuten migrainen tratamendurako. Greziarrek eta erromatarrek, aldiz, arraiaren eta ikaraioaren deskargak baliatu zituzten, eta askotan haztegietan gordezten zituzten, erremedioa eskura izateko. Plinio Zaharrak (K.o. 23-79) idatzi zuenez, “arrain elektrikoak sendagarri gisa erabiltzen dira, buruko mina eta hezueria arintzeko”.

Scribonius Largus sendagileak Klaudio enperadorearen gortean egin zuen lan K.o. I. mendean. Historiako farmakopea zaharrenetarikoa, *De Compositione Medicamentorum* izeneko lanean, 271 sendabide bildu zituen. Horietako bat, honakoa: “Buruko min iraunkor eta jasanezina berehala kentzeko eta sendatzeko bizirik dagoen ikaraio beltz bat jartzen da mina dagoen tokian, oinazea arindu eta gune minberatua txindurrituta geratzen den arte”. Klaudioaren medikuak ere oinetako hezueria sendatzeko balio zuela zioen: oinutsik sakonera gutxiko uretan sartu eta ikaraioek lan egin zezaten utzi behar zuen eriak. Beste idatzi batzuetan artritis eta epilepsia sendatzeko gomendatzen ziren arrainen deskarga elektrikoak.

Berriki Cefaly izeneko gailu elektroterapeutikoa merkaturatu dute. Kopetan ipintzen den gailuak bulkada elektrikoak erabiltzen ditu nerbio trigeminoan estimuluak eragiteko eta, hala, buruko mina arintzeko. Ofizialki ontzat emandako migrainaren kontrako lehen gailu elektrikoa da, baina ezin esan sendabide berri-tzailea denik. ■



Arrastoak

Agatha Christieren kaligrafia irakurtezina

THE GUARDIAN



AGATHA CHRISTIE (1890-1976) oso idazle emankorra izan zen: 66 misterio eta hilketa nobela argitaratu zituen. Baina idazle ingelesak eskuz idazteko zailtasun handiak zituen, disgrafia izeneko koordinazio arazoa medio. Haren eskuizkribuak irakurtezinak ziren. *Krimenaren erreginak* laguntzaile bat izan zuen beti alboan, eta hari dik-

tatu zizkion argitaratutako lanak.

2004an idazlearen alaba Rosalind Hicks hil zenean, Christiek eskuz idatzitako hainbat koaderno aurkitu zituzten familiaren etxean. John Curran artxibozaina idazlearen zirri-marrak dezifratzen hasi zen orduan eta, besteak beste, Hercule Poirot bi istorio berri aurkitu zituen. ■

«Kutxabankek ahitu egin nahi gaitu»

Jose Maria Erauskin Gipuzkoako Kaleratzeak Stop taldeko abokatua da. Bankuen gehiegizko klausulen kontra hamaika auzi ditu esku artean. Hernanin antolatutako Bankuen maltzurkeria. Kutxabank kasua mahai-inguruan hitz egin zuen, eta erakunde horren jokabidea hitz bakarraz deskribatu zuen: lukurreria.

| URKO APAOLAZA AVILA |

HERRIETAKO ARETOAK nekez bete ohi diren garaiotan, Hernaniko Biteri Kultur Etxeko gelan hamarnaka lagun bildu ziren iazko abendu amaieran Kaleratzeak Stop plataformak antolatutako mahai-inguruan; Kutxabanken egoerak eta jardunak jendartearen sortu duen kezka erakusgarri izan liteke agian.

Ekitaldian hiru mahaikide aritu ziren. Javier Olaverri abokatu eta politologoak eta Julian Zapiain EHUKo ekonomia irakasle eta ATTACEko kideak oso ikuspegi desberdinez hitz egin zuten kutxen banku bihurtze eta pribatizazioaz.

Mahai-inguruko hirugarren kideak, Jose Maria Erauskin, familien ekonomia kaltetzen duten eta Kutxabankek erabiltzen dituen zenbait gehiegizko klausula izan zituen aipagai, eta horiek bildu ditugu hemen. Epaitegiek baliogabetuak izan dira, nahiz eta epai batzuk probintzia auzitegiak konfirmatzeko zain dauden. Horien artean eza-gunena IRPHa izango da.

IRPH-Cajas

Hipoteken gaineko IRPH-Cajas interes-tasak berezitasun bat dauka: Espainiako bankuak kalkulatu du, baina kutxek emandako datuen arabera. Hori deigarria suertatzen zaio Erauskini: “Mailegua Euriborrarekin daukagunean, ez bankuak eta ez



Seguruenik IRPHa da Kutxabankek erabiltako gehiegizko klausula eta indizeen artean ezagunena, baina baditu beste gehiago ere.

guk ezin dugu Euriborra baldintzatu, baina IRPHaren kasuan, kutxa guztiek euren bezeroei kobratutako interesen batz besteko sinplea egiten da, hau da, interes-tasa oso altua ezartzen duten entitateak, oso txikiak izanik ere, IRPHan eragiteko gaitasuna daukate. Eta hala, Euriborra %0,5ean dagoen bitartean,

IRPHa %3,94ean dago, %700 altuago. Batez beste hilean 300 euro gehiago ordaintzen dute eta hori sekulako dirutza da, batzuentzat hil ala bizikoa”.

Gipuzkoako Stop Kaleratzeak Donostiako merkataritza-azitegi-
ra jo zuen, salatzeke IRPHa ez zela
interes neutro bat. Epaileak klau-



Kaleratzeak Stop plataformak Hernanin antolatutako mahai-inguruak jende ugari bildu zuen.

sula balio gabetu du eta gaur egun kontrako 32 sententzia dauzka pilatuta finantza entitateak: “Jakina, Kutxabankek errekurritu egin ditu eta orain zain gaude, ea probintzia-azuzitegiak zer dioen. Pentsatzen dut presio handia izango duela finantza eta politika munduko botereengandik”.

Gipuzkoan 15.000 familia inguru daude IRPHarekin, eta banan-banan joan behar dute epaitegira, euren abokatuak eta tasak ordainduta: “Kutxabanki dirurik falta ez zaionez, dena errekurritzen du, eta horrek ahitu egiten gaitu. Orain kautelazko neurriak ere errekurritzen hasi da. Lotsagarria iruditzen zait. Kaleratze bat izan behar denean, sententzia iritsi bitartean epaileak kautelaz gelditu egin dezake prozesua, baina Kutxabankek errekurritu egiten du erabaki hori, baita irabazi ere, legediak arrazoia ematen diolako. Legalki arrazoia du, baina BBVA eta Rural Kutxak, adibidez, ez dute errekurritzen, sententzia iritsi arte itxaroten dute, baina Kutxabankek ez. Hori lukurreria da”.

Abal-emaileak: ahate izatetik, oilasko izatera

Abal-emaileen kasuaz ere hitz egin zuen Erauskin, “beste odoluste bat”. Abal-emaileak zordun baten mailegua bermatzen du, hau zorra ordaindu ezinean geratuz gero. Abal-emaileak baditu oinarritzko

eskubide batzuk, baina zer gertatzen da horiekin Kutxabanken eta beste entitateen kasuan? Abokatuak oso modu grafikoa azaldu zuen:

“Ahatearen testa bezalakoa da: ahate itxura baduzu eta ahate moduan igeri egiten baduzu, ahatea zara. Bada abal-emailearekin gauza bera. Baina badago klausula bat dioena zure eskubidei uko egiten diezula: uste duzu ahatea zarela, baina ezer esan gabe kirurgia egin dizute, eta hara, oilaskoa zara adiskide! Uste duzu abal-emaile zarela eta egiaz zordun solidarioa zara. Zer esan nahi du horrek? Kutxabank zure etxebizitzarekin geratu daitekeela hipoteka eskatu duenarena baino gehiago gusatzatzen bazaio. Gurasoen etxea bereganatu nahi izaten dute seme-alabena ukitu ere egin gabe. Hau gertatzen ari da, lau salaketa jarri ditugu”.

“Kutxabanke bere kontrako sententziak errekurritu egin ditu eta zain gaude ea probintzia-azuzitegiak zer dioen. Pentsatzen dut presio handia izango duela finantza eta politika arloko botereengandik”

Jose Maria Erauskin

Erauskinen esanetan egoera horrek sekulako antsietatea sortzen du zordunarengan: “Badakizu zer den pertsona batentzat gurasoak bere erruz etxerik gabe geratzea? Krispazio eta desoreka ugari sortu ditu familietan”.

Informazio eskubideari uko: oilaskoa putreak jaten duenean

Kutxabankek erabili ohi duen beste klausula batek dio uko egiten diozula informatua izateari zure kreditua beste baten esku lagatzen denean: “Kutxabanke zure kreditua funts-sarraskijale bati saltzen dionean, zuk ez dakizu, informazio horri uko egin diozulako, eta hala, ez duzu kreditua baldintza beretan erosteko aukerarik”. Kutxabanke mailegu horiek euren balioaren %5ean saldu izan dizkie funts-sarraskijaleei, esaterako 2014ko ekainean herritarrek ordaindu ezin zituzten 340 milioi euroko kreditu pertsonalak -60.000 kreditu- 5 milioiren truke saldu zizkion funts bati. Erauskin kexa da, jendeak ere erosiko lituzkeelako prezio horretan: “Badago gauza bat asko gogaitzen nauena. 27.000 euroko mailegu bat Luxenburgoko funts-sarraskijale bati saldu badiozu 400 eurotan, zergatik ez diozu gauza bera eskaini bezeroari? Ez diozulako ezer barkatu nahi”.

Abokatuak azaldu zuen atzerapen-interesak %17,25 kobratzea ere “astakeria bat” dela. Legearen arabera adostasunik egon ezean %4 izan behar du, baina Kutxabanke argudiatu ohi du portzentajea bezeroarekin adosten duela: “Ez da hala izan, mailegu guztiek %17,25 badute, ezin da ulertu negoziatzeorik egon denik, jende guztiari inposatu dio hori: hartzen duzu ala ez”. Klausula hori ere balio gabetu egin dute epaitegiek.

Bestalde, garaiz ez ordaintzeagatik egindako erreklamazioarengatik 30 euroko komisioa kobratzen du entitateak eta klausula hori ere balio gabea dela dio Stop Kaleratzeak taldeak: “Komisioa, egindako zerbitzu batengatik kobratu ohi da, eta zer zerbitzu eman dizute? Garaiz ez duzula ordaindu abisatzea? Ohar horrek 30 zentimo baino ez ditu balio; 30 euro desproporzionatua dela esan du epaitegiak.

Aitzitik, Kutxabankeek soilik epaitegira jo duenari kentzen dio komisioa eta horrelakorik egiten ez duenari —Erauskinen aburuz normalean prokuradorea eta tasak ordaintzeko dirurik ez duelako— kobratzen segitzen du: “Badago jende heldua 400 euroko alargun-pentsioa besterik ez duena, eta diru hori mailegua ordaintzeko ezarritako eguna baino zertxobait beranduago jasotzen duenez, hileroko 30 euro kentzen diote”.

“27.000 euroko mailegua funts-sarraskijale bati saldu badiozu 400 eurotan, zergatik ez diozu gauza bera eskaini bezeroari? Ez diozulako ezer barkatu nahi”

Jose Maria Erauskin

Arazoa ez dira kaleratzeak, gehiegizko klausulak baizik

“Etiket kaleratzeak bankuen abusuaren ondorioetako bat dira” esan zuen Hernanin Erauskinen. Bere hitzetan abusu horiek jendea pobretzen dute eta lehentasunak markatu behar izaten dituzte: “Badaude pertsonak ezer ordaindu ezin dutenak, eta kalean geratzen dira, horiek dira telebistan ateratzen direnak. Beste askok hipoteka ordaintzen segitzen dute —bankuen abusuaren ondorioz gehiegi baloratuta dauden arren— baina ez dute afaltzen edo bazkaltzen. Gaizki elikaturako haurrak daude, IRPHaren 300 euroekin makarroi eta lenteja asko eros daitezkeelako. Sukarra duzunean paracetamola, liburu bat, familiarekin askari bat... Gauza arrunt horiek ere ezin dituzu eduki, zure diru-sarreraren %90 hipoteka ordaintzera bideratzen baduzu”.

Erauskinen iritziz etxetik kaleratzeen kontrako neurriak proposatzen direnean, mesedea bankuari egiten zaio, horrela, bankua “lasai” egon daitekeelako: “Berak etxetik kaleratuko ditu beste batzuek estalpea emango diotela jakinda”. Soluzioa, hortaz, ez omen da kalera-tzea konpontzea, bankuen gehiegikerien kontrako lege bat baizik.

Epailea prebarikatzen

“Europa bakarrik geratzen zaigu, hemengo justiziak ez du balio. Magistratu gisa dago La Caixako sistema juridikoa osatu duena”. Sebastián Sastre ari da, Espainiako Auzitegi Nagusian preferenteen gaia aztertuko duen epaileaz: “Azetria oiloak zaintzen jartzea bezala da”.

Gutxieneko muga edo zoru bat ezartzen duten klausulak ere Auzitegi Nagusira iritsi dira eta baliogabeak direla erabaki dute, baina ezin direla itzuli, horrek sistema publiko-ekonomikoa arriskuan jar dezakeelako: “Zein da irakaspena? Gutxi lapurtzen baduzu itzuli egin beharko duzu, baina asko lapurtuz gero, berarekin geratu zaitezke”.

Stop Kaleratzeak-eko talde juridikoko kideak etengabe ari dira epaileari Europatik datozen sententziak erakusten, halako erabakiak ezin direla hartu erakusteko, Espainiako legediak baimendu arren. Izan ere, Europako Justizia Auzitegiak 1978ko *Simmental* epaian dio juezak ezin duela herrialde bateko araudia ezarri Europakoarekin kontrastatzean baldin badago: “Pentsatzen ari gara salaketaren bat jartzea juezaren kontra, prebarikazioagatik. Nahiz eta jakin halakorik ezin duela egin, Europak kontrakoa exijitzen diolako, jarraitzen du egiten. Seguruenik elkar estaliko dute, baina gutxienez prentsan aterako da Donostiako epaile bat salatua izan dela”. ■





2015
Txotxongiloak, Ipuin kontalariak, magia, antzerkia...
Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 2-8 urte
URTARRILA • OTSAILA • MARTXOA

1/ 19	IZEBA TEKLA 18:00etan Basurtoko udalategian
1/ 20	IRRIEN LAGUNAK 18:00etan Begoñako udalategian
1/ 21	ERIZ MAGOA 18:00etan Errekaldeko udalategian
1/ 22	JAKIN ETA JOLAS 18:00etan Tiboli eskolan
1/ 23	MADIBER MAGOA 18:00etan Abandoko udalategian
1/ 24	ANA MEABE 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
2/ 03	PUSKI ETA TXURRUSKI 18:00etan Begoñako udalategian
2/ 04	KORRI ETA XALTO 18:00etan Errekaldeko udalategian
2/ 05	TXOBORRO MAGOA 18:00etan Tiboli eskolan
2/ 06	APIKA 18:00etan Abandoko udalategian
2/ 07	BAT, BI, HIRU...FESTA! 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
2/ 09	ONINTZE GOITIZ 18:00etan Basurtoko udalategian
2/ 12	BEHINOLA 18:00etan Tiboli eskolan

SUKALDARITZA, MOZORROGINTZA, MUSIKOTERAPIA ETA SORMENEZKO ERAIKUNTZA TAILERREN ESKAINTZA ETA IZEN EMATEA WWW.IKUSIETAIKASI.NET GUNEAN



Zure seme-alabekin euskaraz disfrutatzeke ballabideak sarean.
Ikusi eta ikasi bloga!
www.ikusietaikasi.net





Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



euskaltzateen
topagunea

CHARLIE HEBDOREN AURKAKO ATENTATUA

Bukatu dira bromak Europar

*Charlie Hebdo*ren aurkako atentatuaren erreakzioek begi bistan jarri dituzte Europan une honetan nagusitzen ari diren joera politikoak. Bi mutur, eskuinekoa bata eta islamista bestea, aurkezten zaizkigu arrisku nagusitzat. Eta “segurtasunaren” mesedetan eskubideak kentzea proposatzen dute agintariek: horiek dira indarkeria egoerak gaina hartu duenean protagonista altxa diren aukerak. Ezkerrak ba ote du ezer esateko?

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



Elkartasuna adierazteaz gain, zer egin daiteke *Charlie Hebdo*ren kontrako atentatuaren ondoren? Ultra eskuinak, muturreko islamismoak eta establishmentaren kontrol eta zigor ekinbideek, agerian utzi dute bestelako mundua posible dela uste dutenen diskurtso gabezia.

AURPEGIA ESTALITA duten bi pertsona kalaxnikovak hartuta aldizkari baten erredakzioan sartu eta tiroka hasten direnean ez dago pentsatzeko tarterik. Elkarrizketak, desadostasunak eta eztabaidak ere hor bukatzen dira. *Charlie Hebdo*

aldizkari satiriko frantziarrak urtarriaren 7an jasan zuen atentatua bezalakoek suspenditu egiten dute hizketarako tartea, bestelako urgentziak inposatuz.

Bizia salbatu. Gorpuak kontatu. Negar egin. Dolua. Hildakoekin

elkartasuna. Polizia operazioa. Eta zer gehiago?

Badirudi horrelako ekintzek erreakzio bat probokatu nahi dutela, polarizazio soziala areagotu, gurutzada giroa hauspotu. Nirekin ala nire kontra.

Peru Iparragirrek Paristik kontatu du atentatuaren ondoren egoitzaren inguruan zegoen giroa, *Berriak* argitaratutako kronikan: “Apu bat aurrerago jende multzo bat pilatu da ozen hizketan ari den Front National alderdikoa ei den gazte baten inguruan, segituan entzun dira erantzunak eta oihuak. Kasik ezinezkoa da zer dioten entzutea. Kanpoaldean ezetz egiten du buruarekin jendeak, eta kaleko jantzitako polizia batek egoeraren berri ematen du telefonotik. Tentsioa goraka doa, eskuin muturreko hizlaria polizia artean desagertu den arte”.

Zibilizazioen arteko gerraren jokoa

Elkarren etsai, elkarren ispilu: ultra batzuek ekintza azkarrez dena dardarka jartzen dute eta beste ultra batzuk agertzen dira, abiada berean, zibilizazioen arteko gerra predikatzen.

Denbora azeleratu egin da eta mezu sinpleenek errazago dute bidea. Hilketaren aurrean gaudeenez, mendeku premia aldarrikatu gura duenak haizea alde du. Marine Le Penek, heriotza zigorrari buruzko erreferendum bat proposatuz, momentua probestu du.

Suabeagoa da establishmentaren erreakzioa lehen konpasetan. Itxuraz. Iganderako “terrorismoaren kontrako” goi bilera antolatu baitute. “Europak erreakzionatu behar du”, dio Jean Claude Juncker Europako Batzordeko buruak deialdia publiko egiten den egunean. “Eran-tzun”, “erreakzionatu”, “urgentzia” eta antzeko hitzak baino ez dituzu aurkituko nagusitzen den eremu semantikoan.

Gauzak ez dira gehiegi aldatu 2001eko irailaren 11ko atentatuetatik, behin baino gehiagotan errepikatzen den eskema da: shock egoera sortzen duen ekintza eta salbuespenezko neurri azkarrak, agintarien artean behar bezala adostuta eta koordinatuta.

Hilketa deitoragarri baten aurka sistemak daukan proposamen bakarra gehiago kontrolatzea eta gehiago zigortzea baita; bestela esateko, guztioi askatasunak kentzea, askatasunaren izenean. “Hori ala Front National. Hori ala terrorismo islamista”, da kontsigna.

Falta den ahotsa

Diskurtsoen marko horretan ahots bat faltan sumatzen da. Atentatua gertatu ostean zer esan du ezkerak? Dolua adierazi da, noski. Baita eraso gaitzetsi ere. Eta gertakaria testuinguru globalean kokatzen saiatu dira batzuk, Iraken, Sirian, Afganistanen edo Mendebaldeko herrialdeek armak sartzen dituzten lekue-tan egunero hiltzen den jendea gogora ekarriz.

Parisko atentatua arbuiazearekin batera munduko beste leku askotan probokatzen dituzten biktimei entzungor egiten dietenen hipokresia agerian jartzeko baino ez bada ere, horrelako konparazioak beharrezkoak dira. Baina atentatu baten ondorioen beroan, hil berri direnekin enpatiarik eza adieraz dezake jarrera horrek, besteak beste. “Hemen eta orain gertatu den zerbaiti buruz ari gara, zergatik desbideratzen duzu gaia?”, galdetuko dizu urduritzen hasi den lagunak. Ez da eraginkorra.

Eta eraginkortasun falta berbera, handiagoa agian, erakusten du progresismo multikulturalistan kokatzen den argudiatzeko erak, hau da, problemari giza eskubideetatik eta erlijio guztien errespetagarritasunetik begiratzeak. Gatazkak koska bat gora egin duenean, hildakoak menuaren parte direnean, tokitan geratu dira tolerantzia eta errespetua. Sortu den herra bera da bideratu behar dena eta horretarako “onar dezagun elkar” esatea ez da nahikoa.

Ze mezuk funtziona dezake ordea? Honelako egoeretan ikusten da inoiz baino argiago bestelako mundua posible dela diotenen inopotentzia. Software egokia falta da muturreko islamismoaren, eskuin mutur berriaren eta “betiko” alderdien kontrol eta zigor diskurtsoei aurre egiteko. Eta ez dirudi berehalakoan etorriko denik.

Beharbada fronteetatik ateratzea da kontua. Diskurtso handi baten zain egon beharrean, atzeragoardian zer gertatzen den begiratzea, handik etorriko baitziren *Charlie Hebdo* sarraskitu dutenen gorrotoetako asko. Han ari da egosten mendeku gosean oinarritutako islamofobia ere.

Mundu hobe nola aldarrikatu, beraz, gorroto garaietan? Elkar suntsitzen edo eskubideak galtzen baino, denontzako eskubide gehiagoren alde borrokatzen. Haserre zerbaite eraikitzeko bideratzen. Erraz esaten da. Bide hori urratzeko hondeatzaile handirik ez dugunez, proposatzen zaigun gerra berri handiari aitzurka oztopatu beharko diogu bidea. ■



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu Industrialdea 26 Usurbil 20170 Gipuzkoa
Tel/Fax.: 943 36 11 14 • alkartasuna@usurbil.com
www.alkartasunausurbil.com



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak • Biltegitratzea eta Logistika • Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 • HERNANI • (Gipuzkoa) • ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com • mjm@inakibereziartua.com

«Gazteek eta etorkinek bizkarra ematen badigute jai daukagu»

Josep Ruaix (Moià, Bartzelona, 1940) gramatikaria eta apaiza da. Katalan duina nahi du. Horretarako helburua argi dauka: ahalik eta hiztun gehien lortu eta ahalik eta ondoen hitz egin. Ez du ordea, hiztunek hizkuntzarekiko duten zuzentasun eta jatorriasun gabeziak aztoratzen. Elkarriketa Vilaweb agerkarian egin diote eta pasarte batzuk ekarri ditugu hona.

| JORDI BADIA, ASSUMPCIÓ MARESMÀ |



“Kazetariak ez dute mailarik hoberena, baina ezin dugu askoz gehiago eskatu”.

Katalanaren egoerak asko kezkatzen al zaitu?

Bai, oso kezkatuta nago, baina era berean itxaropen handia daukat. Fabrak [Pompeu Fabrak katalanaren gaur egungo araudia ezarri zuen] esaten zuenari jarraitzen diot: “Inoiz ez dira alboratu behar etxeko lanak eta itxaropena”. Jende asko ari gara hizkuntzaren alde borrokan eta borrokak emaitzak ematen ditu. Bestalde, beste jatorri batzuetako jendeak bereganatu du hizkuntza eta ezin dute

guk 40ko, 50eko, 60ko edo 70eko hamarkadetan menperatzen genuen moduan moldatu katalanez. Nolabaiteko bidesaria ordaindu behar dugu: katalan hiztun gehiago izateko maila jaitxi behar da pixka bat.

Zer esan nahi duzu?

Italian bizi izan nintzen, eta italieraz hitz egiten nuen, baina ez italiarrek bezala. Haiek oso pozik zeuden italieraz egiten nuelako, baina ezin nuen hitz egin haiek bezain ondo. Hemen

gauza bera gertatzen da. Jatorri askotako jendea daukagu (Txina, Latinoamerika, Ukraina, Errusia...). Ez dute guk bezala ikasiko katalana. Gabezia objektibo batzuk onartu beharko ditugu. Katalunian jaio ez diren milioi bat katalan hiztun gehiago nahi baditugu, onartu beharko dugu hizkuntza maila apalagoa izango dutela, ez dira arituko edoski izan balute bezala, ez daukate benetakotasun berdina. Ez naiz ezkorra, jende asko lanean ari delako. Borrokan

jarraitu behar da, eta itxaron behar dugu jende horrek hizkuntza bereganatuko duela, maitatuko duela eta hobetuko. Ni alde guztietatik katalana naiz, baina Ruaixtarak Okzitaniatik iritsi zirela dirudi, ziurrenik XVI. mendean, eta moldatu ziren. Orain gauza bera gertatuko dela itxaron behar dugu: etorri direnak moldatzen joan daitezela, katalan hiztun senti daitezela, hizkuntza defenda dezatela eta ahalik eta ondoen hitz egiten saia daitezela.

Hedabideek zein egiteko dute?

Errespetu handia diet hedabideei hainbat arrazoi tarteko. Hasteko, oso azkar egin behar izaten dute lan. Egunkarietan akatsak ikusten ditudanean ulertzen dut. Bigarrenik, hedabideak gizartearen isla dira. Hitz egiten den katalanak gabezia asko baditu, hedabideetan ari direnei ezin diegu oso diferente jokatzeko eskatu, haiek ere gizartearen parte dira. Ez dute mailarik hobere-na, baina ezin dugu askoz gehiago eskatu. Kazetariei –gauza asko jakin behar dituzte eta batik bat egunero-koari buruz– ezin diegu eskatu hizkuntzaren kalitatea ere zaintzea. Ezin dugu haltzara jo fruitu bila.

Zirujauari eskatzen diogu bisturia erabiltzen jakiteko. Ez al zaie maila bera eskatu behar lanbidean hizkuntza darabiltenei?

Ederra litzateke hedabideetan lan egiten dutenek hobeto hitz egingo eta idatziko balute. Baina kazetaritza ikasi dute, ez hizkuntzalaritza. Ezin diegu eskatu filologiako irakasle batek bezala idaztea.

Eta irakasleek zein eginkizun dute?

Hizkuntza irakasleak eta ikasgairak bat irakasten dutenak desberdin behar dira. Hizkuntza irakasleek euren buruei gehiago eskatu behar-ko liekete, baina hainbeste ikasgai ikasi behar izan dituzte... Hizkun-

“Katalunian jaio ez diren milioi bat katalan hiztun gehiago nahi baditugu, onartu beharko dugu hizkuntza maila apalagoa izango dutela”

tzaz gain gauza interesgarri asko daude eta denak ez dira hizkuntzalaria-riak. Etorkizunean, hobera egingo duten eta okerrera egingo duten gauzak ikusiko ditugu. Baina Fabra zen bezala, baikorra izan nahi dut.

Hain pragmatikoak bagara eta erreferenteak galtzen baditugu, bigarren eta hirugarren belaunaldiek ez al dute kalterik jasango?

Hedabideek belaunaldi berriekin bat egitea lortu behar dugu. Hizkuntza esoterikoegia, zailegia, goi mailakoegia egiten badugu ez dira identifikatuta sentituko. Forma jatorrago eta zuzenagoetara ohitu behar ditugu, baina bitartean ez daitezela deseroso sentitu. Eskatzen joango dira, galduta zeuden formak berreskuratzen joango dira. Hebrearrek hala egin zuten. Diasporan zeuden, haien herrialdera itzultzeko aukera izan zuten eta hebreera berreskuratu dute. Ez da zehazki gauza bera, baina badago antzekotasunik. Bataila bat galtzeko prest egon behar dugu, gerra irabazi nahi badugu. Gazteek eta etorkinek bizkarra ematen badigute

“Hizkuntza esoterikoegia, zailegia, goi mailakoegia egiten badugu ez dira identifikatuta sentituko bigarren eta hirugarren belaunaldikoak”

jai daukagu. Trebeak izan behar dugu. Pragmatikoak.

Hedabideetan, bikoiztutako elkarrizketetan honelako adierazpideak entzuten ditugu: “*cómo mola*”, “*tío, qué haces*”, “*qué chulo*”. Gure gazte hizkerarik ezin al dugu eduki?

Berriz diot. Iaioak izan behar dugu. Jakin behar dugu zenbateraino inposatu edo proposatu ditzakegun forma jatorrak. Asma ditzakegu, baina erabiltzaileek onartzeko prest egon behar dute. Luzera ehun irabazteko orain hogeitau galduta behar ditugu. Aurrera begira, beraiek berreskuratu ahalko dituzte forma jatorragoak edo berriak asmatuko dituzte. Soziolinguistaren batek esaten zuen: hizkuntzak ez-puruak dira. Katalana gaizki hitz egindako eta gaizki idatzitako latinetik dator. VIII. eta IX. mendeetan, latina zekitenak ikaratu egingo ziren haien garaikoen hanka-sartzeekin. Eta gu orain pozik gaude, hizkuntza eredugarria da. Nolabaiteko narriadura hizkuntzari datxekion kontua da. Hizkuntzak ez dira betiko, galkorrak dira, gu bezala.

Ez dadila hil...

Luzera hil egingo da, gauza guztiak bezala. 200 edo 300 urte barru... Apaizak bezala hasi naiz hitz egiten...

Orain kemenez gabilta ala erortzen ari gara?

Principat-en, hiztun kopuruari dagokionez, irabazten ari gara, baina kalitateari dagokionez, galeran gara. Beste eremu periferikoei dagokionez, nahiko kezkarria da, indar batzuek hizkuntza murriztea nahi dute, baita desagerraraztea ere. Lagundu egin behar diegu, baina Fabrak esan bezala, valentziarrek eta Balearrekoek haien politika erabaki behar dute. Ezin gara inperialistak izan. ■



Babeslea: Hondarriko Udala



Hondarribiko Udala

EUSKAL

**NO
BE
LA**

BELTZAREN

ASTE

BAZTAN

ILBELTZAREN

21 - 22 - 23 - 24 ETA 25

ANTOLATZEN DU



INFORMAZIOA
WWW.ILBELTZA.BLOGSPOT.COM



LAGUNTZEN DUTE.

Baztango
Udala

elizondoko
herria

iruritako
herria

elizondoko
gaztetxea



ttipi-ttapa

zabalgineak

berria
argia

Ospitaleetan euskara bultzatzeko hitzarmena

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAK eta Euskal Kostaldeko Ospitaleek egin dute hitzarmena, hiru urterako balioko duena. EEPk lehenengo urtean 3.000 euroko diru-laguntza eskainiko die, bigarrenengoan 2.000 eurokoa, eta hirugarrenengoan 1.000 eurokoa. Ospitaleetan, besteak beste Baionakoan eta Donibane Lohizunekoan, euskara sustatu nahi dute. Hitzarmena sinatu dutenen ustez, integrazioa eta konfiantza lortzeko bektore garrantzitsu izan daiteke hizkuntza.

Ahokoan eta idatzizkoan, bietan hartuko dituzte neurriak. Idatzizkoari dagokionez, seinaleak euskaraz jarriko dituzte, webgunea euskaratuko dute eta prebentzio kanpainak euskaraz ere egingo dituzte.

Ahokoari dagokionez, euskaraz (asko edo gutxi) dakiten langi-

leekin egingo dute lan. Haiei baliabideak emango zaizkie euskara erabil dezaten, eta besteak beste prestakuntza eskainiko zaie. Hitzarmena EEPren eta Euskal Kostaldeko Ospitaleen artean sinatu bada ere, *Ospitalean Euskaraz* langileen boluntario taldea izan da bultzatzaile. Ospitaleetan, euskaraz aritzeko gai diren langileak identifikatuko dituzte, eta nahi izanez gero, euskaraz dakitela adierazten duten txartelak erabili ahal izango dituzte. Batek “Euskaraz mintza gaitezke” leloa izango du eta besteak “Euskara ikasten ari naiz”.

Michel Glanes Euskal Kostaldeko Ospitaleetako zuzendariaren ustez, hizkuntzaren erabilera terapeutikoa egokia da: “Momentu batzuetan edozein motibaziori heldu behar zaio sendatu edo bizi ahal izateko, eta horretarako ona izan daiteke”.

Anjel Lertxundik *Berrian* esanak:

“Zuzendariak filmaren euskarazko tituluari eutsi diote, *Loreak*, beste hizkuntzetan ere. Bernardo Atxagak *Obabakoak* gorde zuen han-hemengo itzulpenetan. *Illeta* eta *Zigor* gisa ezagutzen ditugu, gaztelaniaz ari garenean ere, Escuderoen bi obra nagusiak. *Osasuna* da gorritxoaren futbol-taldea, *Oberena* peña alaiaren grazia. Zenbat *Ternua* markako jantzi ez ote dute saldu festa bukatu berrietan! Denbora gutxian *Zinemaldia* marka lortu du oraintsu arte *Festival de Cine* zenak. Beste hizkuntzetan ere ikasi zuten *Lehendakari* edo *Ararteko* esaten. *Giro*, *Tour* eta *Vueltarekin* batera badaukagu *Itzulia* ere... Euskaratik mundura hartutako erabakiak dira, jatorrizko hizkuntzaren barne-logikaren hariarekin albainduak.

Sukaldea galtzen denean, ordea, *Basque Culinary Center* jaiotzen da, *orain!* oihuaren oihartzuna itzaltzen du *now!* modernoñoak, txiste triste bat da euskal selekzioaren errebindikazioa etxean jokatzeko dela ahaztea...”

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Urte berrirako helburuak eta desioak

HASI BERRI DUGUN URTEAN, dauzkagun desioak helburu betetzea nahiko genuke sozio-ekonomia zutabe honetatik. Atzean utzi duguna ustelkeriaren urtea izan da, prekarietatearena, langabeziarena, pobrezia eta bazterketa sozialaren urtea. Hori guztia egungo sistema ekonomikoak ekarri du, kapitalismoak, nahierara ibili delako eta munduko eta herrialdeetako ekonomia gidatu duelako, herritarrek aukeratu ez duten arren.

Sistema ekonomiko alternatiboa nahiko genuke, ekonomia soziala eta solidarioa bere egingo dituen, funtsezko baloreetan oinarritua, hala nola elkartasuna, giza duintasuna, justizia soziala, ingurumen politika jasangarria, merkataritza justua, gardentasuna eta demokrazia. Hori lortuko bagenu, gutxieneko soldatek, pentsioek, diru-sarrerak bermatzeko errentek, langabezia sariak, menpekotasunagatiko diru-laguntzek eta bestelako prestazio sozialek pobrezia-maila gainditu beharko lukete. Maila hori 1.000 euro inguruan dago, baina gutxieneko soldata 648 eurokoa da, langabezia saria berriz 428 eurokoa, eta alargunentzako pentsioa maiz ez da iristen 700 eurora.

Baina horretarako politika ekonomikoetan erabateko aldaketa behar da, euskaldunen subiranotasun ekonomikoa eta lan-harremanen euskal esparrua ere errespetatu, sustatu eta defendatuko dituen sistema behar baitugu. Politika ekonomiko horrek zentzuzko kontsumoa bultzatu behar luke ekonomia haz dadin, baina horretarako beharrezkoa da soldata ere haztea. Enplegu duina ere sortu behar da. Eta iruzur fiskalari gogor egin; paradisu fiskalak ezabatu eta iruzurgileak identifikatu behar dira. Gehien duenari zerga gehiago jarri behar zaizkio; enpresa eta multinazionalak ordaindu ditzatela dagozkien zergak. Eta azkenik, murriztu behar da militarren eta monarkiaren gastua, eta baita alferrikakoak diren AHT gisako azpiegitura erraldoietan egiten diren xahuketak ere. Ea helburu eta desio horiek betetzen doazen. Herritar bakoitzaren ekarpena funtsezkoa izango da horretarako, baita mugimendu sozial, sindikal eta politikoena ere.

Juan Mari Arregi



Giza eskubideen defentsari eraso

Urtarrilaren 10ean milaka herritarrek Bilboko udaletxetik La Casillarrainoko bi kilometroak argitxo betetzuten, “Now Euskal Herrira!” lelo nagusiaren pean. Sare elkarteak herritar oro giza eskubideen defentsan eta dispartzioaren aurka lan egitera deitu zuen. Astelehen goizean

Guardia Zibilak euskal preso 12 abokatu eta Herrira elkarte 4 kide atxilotu zituen. Ondorioetako bat izan zen ahozko epaiketa zuten ezker abertzaleko 35 kide defentsarik gabe uztea (epaiketa bertan behera geratu zen).

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Dani Blanco



2014ko urtarrilaren 8a. Euskal Herrian dena da prest urtero urtarilean euskal preso eskubideen alde egiten den manifestaziorako, baina oraingoan ere ez da Madrilan esku-hartzerik faltako eta EPPK-ko zortzi mintzakide atxilotu ditu. Zalaparta itzela izan da eta, gainera, Auzitegi Nazionalak manifestazioa debekatu du. Debekua medio EAJk ere manifestazioarekin bat egin du eta mobilizazioa Euskal Herrian izan den handienetakoa izan da. Jake esan



Guardia Zibilak LABeko egoitza ere miatu zuen urtarrilaren 12an.

zuen Guardia Zibilak operazioaren izenarekin.

2015eko urtarrilaren 12a. Euskal Herrian euskal preso eskubideen aldeko manifestazioa egin da eta bi egunera Guardia Zibilak euskal preso 12 abokatu eta Herrirako 4 kide atxilotu ditu: ETako kide izatea, iruzurra eta diru zuriketa leporatzen zaie. Mate esan du Guardia Zibilak orain. Baita El Mundoko gaurko tituluak ere: “ETako abokatuen kolektibo osoa atxilotua”.



Senideak, herritarrak eta astez aste espetxe barreiatuetara eramaten dituzten Mieltxin furgonetak izan ziren manifestazioen protagonista.

Hori da helburua, antza: euskal presoen defentsan edo bitartekaritzan dabilzan abokatu eta herritar guztiak atxilotzea eta haiekiko solaskidetza oztopatzea. Handik edo hemendik bake prozesu ia ikusezin hori elikatu dezakeen edozer oztopatzea. Denak dira etakide, “dena da ETA”. Eta Espainiako Gobernuan dena mendekua, euskal gizarteak behin eta berriz aldarrikatzen duen bake eta bizikidetzaren aurka dena oztopo.

Sakonean, PPren Gobernuak argi uzten du euskal gizarteak pentsatzen duena berdin zaiola; eta berdin Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrek eta gainerako euskal insti-

tuzioek esaten dutena. Gordin esanda, pixa egiten die guztiei buru gainean. Eta gainera trufa doinuz: iaz manifestazioaren aurretik eta aurtun ostean, “berdin zaigu”. Gaitza da mendekuaz aparteko bestelako irakurketarik egitea, garai batean euskal auziak ematen baitzien errentarik Espainian, baina gaur egun hori ere ez. Hala ere, antza, eta are gehiago Parisko igandeko manifestazioaren ondoren, hemen ere terroristek ez dutela babeslekurik erakustea beti da errentagarri.

Klabea? Euskal gizartearen egiazko bake prozesu baten alde egin nahi dutenek behingoz bat egitea eta,

desberdintasunak desberdintasun, bakea eta bizikidetzaz serio eraikitzen hastea. Ahaztu une batez Madril eta ekin hemen, bestela Madril ere ez baita mugituko. EH Bildutik eta PSeraino —edo inkestak lehen lerroan jartzen duten Podemoseraino— eta tartean aktiboen behar luketenak, EAJ eta Eusko Jaurlaritza. PPk nahiago du Euskal Herria nahasian, horrek dena oztopatzen baitu, baina euskal gizarteak badu garai berri bat bizitzeko eskubidea eta nahia. Ez da beste barik zerutik jausiko, euskal herritar eta instituzioei dagokie haren alde borrokatzea.

2016ko urtarrila... ■

Greziar jokoan dira politika neoliberalak eta demokrazia bera

“Greziak ezin dio xantaiarik egin ez Alemaniari eta ez Europari” esan dute Angela Merkelen alderditik, eta askok ulertu zuten justu kontrakoa ari zela gertatzen, hots, Europak mehatxu egiten diola Greziako hautesleriari. 2015ean Europa osoa astinduko duen partida gogor baten lehen kapitulu garrantzitsua jokatzen da Grezian.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ANTONIS SAMARASEK AHALEGINAK eta bi egin ditu aginteari eutsiz Greziak jarrai zezan Troikaren aginduak betetzen. Abenduaren 29an galdu zuen azken bozketaren aurretik diputatuak erosten ere saiatu zen, greziar guztiek ikusi dute, ustelkeria delituak pertsegitu behar dituzten epaileek ezik. Alferrik.

Samarasen eta oro har Grezian Europako estabimenduntaren planak aurrera ateratzen aritu den eskuinaren arazoa da herrialde horretan haragi bilakatu direla ekonomialari burutsu askok aspalditik iragartzen zituzten hondamendiak: 2008an lehertutako krisitzarrari erantzuten baldin bazaio 1929an erabilitako errezerak berdinekin, 1930eko hamarkadako ondorio tristen berdinak ekarri behar zituztela.

2015ean, Grezia odolusturik dago ia bost urtetan bere ekonomia eta gizarte bizitza osoa mutilatu eta txirtxilatatu dituzten delako *Memorandumei* esker. Europako Banku Zentralak, Europar Batzordeak eta Nazioarteko Diru Funttsak osatzen duten Troika famatuak ezarritako politikek errekarera eraman dute Grezia.

Troikak egindako sarraskia azaltzen dute hainbat datu estatistikok. Populazioaren %17k ezin ditu oinarritzko beharrak ase. Langabezia %27an dago. 250.000 familiaz goiti

kanporatu dituzte beren etxeetatik. Herrialdearen defizita lau urtez okerragotu da 2010eko %11,1tik 2014ko %12,2ra; kanpo zorra igo da %146tik %175ra. Barne Produktu Gordina erori da %20.

Osasun sistema eraitsi, gaixoei gehiago ordainarazi, malaria bezala desagertutzat zeuden eritasunak ugaritzen, hiesagatik heriotzak bezala, suizidio tasak handitzen, argindarrik gabe bizi diren kopuruak ere bai, gaixo diren milaka haur... Numero hotzak diren estatistikok milaka herritarren milaka drama zehatzetan mamitzen dira, horietako askoren kontakizuna ere erraz eskuratu dezake nahi duenak.

Panagiotis Grigoriou antropologoak *Greek Crisis* blogean ederki laburbildu duenez, Samarasen arazoa dagoeneko ez da orain arteko logikan ezkerreko botoa emango dion hautesleria, baizik eta zehazkiago soziologiaz eskuinean kokatutakoa. Ezker-eskuin eten horiek ez dira iraganean bezain garrantzitsuak, krisiak kaltetutako jende ugarien artean klase ertainekoek ere ikusi dute katastrofea nahitara antolatu eta planifikatu dutela, eta epe laburrean ezingo zaiola buelta eman.

“Troikaren programak –dio Grigoriouk– larriki zauritu ditu enpresa libre txiki eta ertainak, etxe eta lurraren jabegoa –erdiko klaseak

Irudi hau da Dimitris Michalakisek bere blogean eta *Vice* hedabidean iazko maiatzean ipinitako “*Four Years of Austerity in 40 Pictures*” (Lau urteko murrizketak 40 argazkitan) bildumako bat, gordinen artean bigunenetakoa bat: gazte langabetu bat harresian eserita. Internetez osorik eskuratu daitekeen bildumaren argazkiek beren oineko testu laburrekin eskaintzen dute Greziako jendeei urteotako krisiarekin eta Europak ezarritako murrizketekin gaineratu dieten infernua. Langabezia, erretiroen mozketak, zerga berriak, txirotasuna, klase ertainaren hondoratzea, etxerik gabeen ugaritzea, etorkinen kontrako erasoak, osasun sistemaren hondoratzea, prostituzioa, gaixo psikikoen abandonatzea... 40 argazkik ez dute agortzen, ordea, Troikaren aginduek eragindako miseria guztia. Gutxi zabaldu da azken urteotan Greziako azienaren artean ere izurriteak ugaritu direla, albatari faltagatik.

gizartean igotzeko dauzkan mugikortasun estrategien bizkarrezurra–, soldadak, jubilazioak eta, azkenean, baita funtzionarioak ere, orain arte Demokrazia Berriaren eta PASOKen bipartidismo historikotik oso hurbil zirenak. Azpimarratu behar da ustelkeria, nepotismoa eta klientelismoa sustatu dituztela Troikaren memorandumaren aldekoek, neoliberalismo erasokorrez bezituztik, baina oraingoa xehetasun txiki batekin, Atenasen entzuten den moduan: ‘Denentzako ez dago orain’. Oso gutxi eta ondo kokatutaz bakarrik dira Memorandumaren mesedeak”.

Troikaren errezeretentzako testa

Europar Batasuna Alemaniaren agintaritzak zorrotzaren pean XXI. mendeko krisi itzelaren aurrean ezartzen ari den irteera neoliberalak gero eta kritikoa gehiago dauzka 2015ean. Nazioarteko Diru Funtseko agintariek ere aitortu dute huts egin dutela pribatizazio eta murrizketetan oinarritutako bere formulak... nahiz eta gero MDFeko inork ez duen ordain gisa dimisorik eman.

Ez da ezkerre bakarrik Greziako eta oro har Europako formulon egokitasun teorikoa auzitan jartzen duena, sisteman ondo txertatutako erakunde eta aditu asko dira kritiko



Mehatxuokin ez badute lortzen Syrizar garaipena eragozte, aditu batzuek aurreratu dute —ez zegoen aztia izan beharrik— agintea klase guztietako oztopoz trabatuko diotela. Soilik NDFak egin duen bezala kredituak etetearekin, Greziak ez du asko gehiago behar egun batetik bestera erabat kolapsatzeko.

Hala ere, gero eta gehiago dira Greziarekin —Syrizarekin, alegia— zorraren parte baten barkamena negoziatu beharko dela uste dutenak. Horretarako urrats inportantea emana daukate, egia esan, lehen korporazio handienak ziren zorrak orain estatuek eta Europak bere gain hartu dituztelako. Diru publikoekin errazago negoziatzen da.

Pablo Elorduyk *Diagonalen* idatzi duen moduan, “*La disputa por la europa social empieza en Grecia*”. Europako eliteek beren nagusitasunari tinko eutsi nahian Grezian demokrazia bera jarri dutela arriskuan salatu dute Frantziako hainbat intelektualek plazaratu duten “*Grèce: Rendons-leur la démocratie! (Troika basta!)*” agirian: “Europar Batasuna, europar agintariak, Nazioarteko Diru Funtza, burtsako kalifikazioko agentziak: laga zuen xantaia, bukatu Greziako hauteskunde kanpainan muturra sartzea! Utzi herriari erabakitzen!”.

Panagiotis Grigoriou ez da baikor Grezian eraso horri aurre egiteko ahalmenaz: “Beldurra bilakatu da Europako agintariek daukaten azkenetako arma, hauteskundeak emaitzak faltsutzea den azken-azkenaren aurretik”. ■



Berlinek ezarritako dotrinarekiko. Baina Troikaren atzean dagoen Europako establishmenta ez dute hainbeste kezkatzen adituen kritika teorikoei, herrialde ezberdinetan indartzen ari diren kontrako mugimenduei baino. Horregatik ulertu du zenbaitek Berlindik eta Bruselatik zabalduetako mehatxuek Greziari presio egitea adina bilatzen zutela Espainian, Frantzian, Italian eta baita Irlandan ere politika ekonomikoaren aldaketaren mezuarekin indartsu datozen talde ezkertiarren muturretan hesia jasotzea.

Hauteskundera beteta heldu da 2015a. Hego Euskal Herrian udal eta foru erakundeetakoiei eta izatekotan Kataluniakoiei bezala Espainiakoei begira bizi ginenok bat

batean Grezia ikusi dugu astintzen europar guztien agenda. Ondoren etorriko dira gehiago kontinente osoan. Eta denetan, suziri baten ziztuan igo den Podemosen eraginak erakutsi duenez, krisiaren aurreko estrategiak eta hauek herriarren gain murrizketa basatiekin ekarri dituzten ezin biziak protagonismo handia izanen dute.

Grezian austeritatearen kontrako predikuak darabiltzaten indarrei kontrako sua piztu diete Bruselastik. Ez dagoela alternatibarik, zorrak pagatzeko direla, utikan egindako zorren auditoriarik, eta Merkelen errezeta ortodoxoei uko egitera ausartzen dena eurotik kanpo joango dela, zeina esatea bezala baita Europatik fueratuko dutela.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Handitan izan nahi dudana

CHARLIE HEBDO, ez naiz eta banaiz. Nik ere antzerako burutazioak izan ditut Parisko 12 hilketen ondorengo uneetan, Pello Zubiria ARGIAko kazetariak bere blogean azaltzen zuen bezala. Ez naiz eta banaiz. Igandeko Parisko manifestazioan herriarren artean egongo nintzateke hildako kazetarietako elkertasunez eta sarraskia salatzeke; eta ez nintzateke izango, munduko buruzagiek emandako doinuaz zibilizazioen arteko talka azpimarratu delako, Mendebaldearen lehentasuna eta nagusikeria lehen lerroa eramanez.

Charlie naiz, kazetari moduan, adierazpen askatasuna lanbide eta bizitzaren ardatz delako lumaz edo arkatzez aritzen garenontzat. Ez naiz, mendebaldeko agintariek *Charlie Hebdo* eta adierazpen askatasuna beren zibilizazio nagusikeriaren sinbolo bihurtu nahi dutelako.

Charlie naiz, miresgarria eta eredugarria delako kazetari eta marrazkilari talde batek noraino egin dezakeen beren ideiekin bat bizitzeko, libre guztiz halakorik ezin den munduan, Askatasunari etengabe ateak irekiz. Ez naiz, haien probokazio eta ikusmolde guztiekin bat ez natorrelako. Ez nintzateke gai izango aldizkariako azalean Mahoma profeta kaka bat dela esateko, ados ez nagoe-lako eta, gainera, temeritatea delako.

Charlie Hebdo izan nahi nuke, baina ezin dut, mundu arriskutsu honetan zuhurtzia biziraupenerako balioa ere badelako, eta giza eskubide eta giza baloreen irakurketa globalizaturik ez dagoelako. Oraindik ezin dut, baina handitan bai, handitan *Charlie* izan nahi nuke.

“HAU EZ DA Frantziako hiriburuan gertatutako krisi terroristak isolatu eta dramatiko bakan bat. Ekialde Hurbila Europan instalatzen ari da. Hurakana Sirian da, Iraken eta baita gure artean ere. Munduko arazoaren integrazio nahasketa da eta Mendebaldea dagoeneko ez da konpartimendu itxi bat berak munduan sortutako porrot eta hondamendien ondorio larregarrien aurrean”. Rafael Poch Parisko *La Vanguardia*ko korrespontsalak horrela zabalitzen zuen iragan igandeko bere kronika. Alegia Yihadismoak bere jarduna globalizatu duela eta orain Bagdad, Alepo eta Damasko, Paris, Londres edo Madril izan daitezkeela.

Yihadismoak bere jarduna globalizatu du eta orain Bagdad, Alepo eta Damasko, Paris, Londres edo Madril izan daitezke

Adierazpen askatasunaren defentsa egin behar dela bistan da eta *Charlie Hebdo*ren aurkako sarraskiaren aurkako salaketa ere bai, baina atentatu horiek bere testuinguruan jarri barik, nekez egin daiteke egoeraren azterketa egokirik. Hiltzaileek hitzez ere argi azaldu dute hori segurtasun indarren tiropean hil aurretik.

Gerra Hotzaren amaieran ospetsu egin zen Francis Fukuyamaren esaldia: “Historia amaitu da”. Mendebaldeak erabateko garai-pentzat hartu zituen Berlingo Harresiaren eta Sobiet Batasunaren desagerpena. Zibilizazioak komunismoa garaitu zuen. Ongiak gaizkia. Eta 2001eko Dorre Bikien

atentatuen ondoren, Amerikako Estatu Batuek logika berberari ekin zioten: norberaren ikusmoldeari eusteko, zibilizazioak behar zuen bere gaiztoa birsortzea. Berriz ere irabazteko, beren herriarren gobernu zapaltzaile eta ustelak nahieran erabiliz, bere hegemonia helburuak hamaikagarrenez gauzatzeko.

Gerra berri horretan gaude eta, itxura guztien arabera, zipriztinak gero eta sarriago jasango dira Mendebaldean, gurean. Baina Parisen iragan igandean ikusi zenez, etsaiari aurre egiteko prest da Mendebaldea. Segurtasuna eskubideen gainetik, irailaren 11ren ondorengo bigarren kapituluabian da, bidez batez Europa barruan sor daitezkeen edozelako alternatibak hobeto kontrolatzeko.


Askoz ertz gehiago ere baditu *Charlie Hebdo*ren aurkakoak, zorrotzak eta korapilatsuak, hegotik datozkigun herriarrei gure gobernuek oztopo gisa jartzen dizkieten txarrantza biribilen gisakoak, baina Mendebaldeko nagusikeria da, ostera ere, lurrikara berri honen epizentroan.

ADIERAZPEN ASKATASUNA

askatasunaren akuilu eta lurralde librea da aldi berean, bizi leku goxo, mingots eta kontraesankorra. Kartzelan dira oraindik *Egin*-eko arduradunak, ETAko izateaz zigortuta, haien arma bakarra luma zenean. *Charlie* ei direnek espetxeratu zituzten. Paristik bueltan dira. ETAk Javier Lopez de Lacalle kazetaria hil zuenean, edo Gorka Landaburu zauritu, ezker abertzaleko esparru batek ez zuen *Charlie* aipatu, gatazka baizik. Bizigune ez dena ezin ipar bilakatu. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Atxaspi Hotela

Bi lagunentzako
relax gava
asteaz zehar

Bittirika kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

STM San Telmo Museoa



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

4



Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2443. Argia)

ATXASPI

- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)

EUREKA

- Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

EKAINBERRI

- Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
- Julen Gorostizaga Elu (Arankudiaga)
- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)

BRENDAN

- Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)
- Ostolaza Udal Liburutegia (Deba)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
- Maider Guridi Zumalde (Madrid)
- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)

ARGIA KAMISETA

- Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



#DARPIDEGU

**ARGIAK HARPIDEDUN BAT
EGITEN DUEN ALDIRO...**



**HARPIDETZA BAKOITZAREKIN,
ARE INDEPENDENTEAGO**

ARGIA astero jasotzeko aukera:

hilean 12 € baino ez!*

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:

hilean 4 € baino gutxiago!**



☎ 943 371 545

harpidetza@argia.eus

www.argia.eus/harpidetza

(*) 145 euro urtean. Igorpenetan ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera (46 zenbaki + 11 Larrun + Urtekaria). (**) 41 euro urtean (11 zenbaki + 11 Larrun).